

Euskahaldunok boterea hartzeko beharrean



Larrun

Gizonak eta feminismoa

Diagonal

10 urte militantzia eta komunikazio
profesionala uztartzen

Departamenduetako bozak

Bipartidismoa iragana izan daiteke
Frantziako Estatuan

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO

Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko martxoaren 29a, 2.455. zenbakia

ASTEKO GAIA

OROIMEN HISTORIKOA HEZKUNTZAN Frankismoan
bizitakoa aitona-amonen ahotik jaso dute Sakanako ikasleek.
ANDER LEON / 4

PERTSONAIA

RAY FERNÁNDEZ: «Troba zahar tradizionalaren oinordetzat
daukat neure burua». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

ELIKADURA BURUJABETZA Gurasoek kudeatuko dute lau
ikastetxe publikotako jantokia. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 15
GONZALO GARATE PRIETO, DIAGONAL EGUNKARIKO KIDEA:
«Kazetaritza ikasketek ez dute profesionaltasuna ematen,
jakin-minak eta praktikak baizik». AXIER LOPEZ / 16

IRITZIAREN LEIHOA

EZ AL GARA ESPETXEETATIK ATERAKO?

GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 20

ALDAKETARI PUNTUA JARTZEN IÑAKI ANTIGUEDAD / 22

SAHARAKO MARATOIAN JOXE IRIARTE 'BIKILA' / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

BERTSO BERRIAK Ahuntz deneko zubi. JUANJO RESPALDIZA / 21

TXANDAN Autokonfiantza. JOANES ETXEBARRIA / 22

ERDIKO KAIERA

UNAI ELORRIAGA: «Denok gaude biolentziaren gurgil
horretan sartuta». MIEL A. ELUSTONDO / 24

DONOSTIA 2016 Hizkuntza politikarekin katramilatu da
Kultur Hiriburua. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 28

ZARAUZKO MODELO ARETOA Nola bihurtu zinema zahar
bat kultur gune berri. LIDE HERNANDO / 30

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 32

MUSIKA JOXI UBEDA / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 34

ALEA Bada sekula epeltzen ez den kafe bat / Zahartzaroan ere
punk. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 35

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

BIOMASA ARAMAION Burujabe izateko, herria egurrez
berotu. IKER BARANDIARAN / 39

KORRIKA 19 Hizkuntzaren presioa aldeztatzen du goaz.
ESTITXU EIZAGIRRE, AXIER LOPEZ, LANDER ARBELAITZ / 43

DEPARTAMENDUETAKO BOZAK Zentro-eskuina garaile
estatuan, EH Bai eta FN nabari dira gurean.

MIKEL ASURMENDI / 47

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 42

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 42

NET HURBIL Gizon Arruntaren Alderdia, Indiako beste
populismoa. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Frankismoan bizitakoa aitona-amonon ahotik jaso dute Sakanako ikasleek

Frankismoa eta irakaskuntza ez dira inoiz ondo elkartzen diren bi hitz izan. Erregimen diktatorialak ez zuen hezkuntza ondo tratatu eta gaur egungo irakaskuntzak oraindik polemikoa den garai historiko hori jorratzerakoan arazoak izaten ditu. Hutsunea betetzeko Nafarroako hainbat institututan ahozko historia oinarri duen Gogoan proiektua dute martxan; Sakanara jo dugu horren berri jakiteko.

| ANDER LEON |

GERRA ZIBILAREN ostean, matxinatuen garai-penarekin, Errepublika garaian martxan jarritako erreformen porrota etorri zen, eta beste askoren artean, hezkuntzaren hobekuntzarena zegoen. Maisu-maistren fusilamenduak eguneroko ogi bihurtuta, proiektu pedagogikoak erabat aldatu ziren. Prozesu hori azaltzen duten dozenaka liburu, dokumental eta erakusketa badira. Bestalde, Franco diktadorearen heriotzaz geroztik asko izan dira indarrean egon diren hezkuntza sistemak eta batek ere ez du asmatu 1936-1978 garaia behar bezalako tratamendua ematen. Edozein testu-libururi begiratuta, aipamen orokor batzuk, fase batzuen banaketa eta deskribapen laburrak dira frankismoaren inguruko lagin bakarrak. Gaitegiaren bukaeran egoteak ere ez du laguntzen, eta askotan, denbora faltaren aitzakian, landu gabeko gaien artean geratu ohi da. Emaizta? Gaur egungo gazte askok ikasketak bukatzen dituztela berebiziko garrantzia duen garai horri buruzko ezjakintasunean.

Iragana ahaztea izaten da memoria historikoa aipatzen denean azaltzen den kezka nagusia, baina gizarteak ezin du ahaztu ez dakiena. Transmisio falta da informazio galera horren arrazoi nagusia. Horren kontrako neurritzat har daiteke Gogoan proiektua, hau da, informazioa lortu, jaso eta gorde. Ahanzturaren kontrako tresna informazioaren transmisioa eta bilketa da.

Proiektu horren baitan Sakanako herri guztietan ehunka elkarriketa egin dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek; euren gertukoaren iragana deskubritu eta bertatik ikastearekin batera, eskualdeko memoria historikoa ikertzeko datu-base baliotsua osatu dute.

12 urte eta 300 elkarriketako artxiboa

Ikerketa eta irakaskuntzaren arteko zuloa zabala izaten da batzuetan. Ikerlariak beraien jardunean bizi ohi dira hainbatetan –batzuk konpromiso soziala ahaztu eta endogamia akademizistan erortzeraino–. Irakasle asko, berriz, eroso aritzen dira ikerketatik urrun, testu-liburuetan idatzitakoari baino ez kasu eginez.

Altsasuko
Aralarko Mikel
Donea institutuan
gordetzen da
elkarriketekin
sorturiko artxibo
aberatsa.
Teknologia
berriekin nola
uztatu izango da
etorkizuneko
erronka.





Gizarte Zientzien irakaskuntzaz hausnar-tzean, ikasleen beharretatik urrun egotea izaten da kezka nagusietako bat. Zertarako Historia irakatsi? Helburu nagusia herritar jakitun, kritiko eta parte-hartzaileak sortzea izan beharko luke eta hori nekez lortuko da liburu baten pasarteak errepikaraziz, baizik eta bizi diren gizartearen historiak izan duen eragina ikusarazten. Horretarako, irakasle talde batek Gogoan proiektua sortu zuen duela 12 urte, ikerketa ikasgelara eramatea ikaskuntzaren zati garrantzitsua izan daitekeela erakusteko asmoz.


2003ko irailean, Geronimo de Uztariz Institutuak bultzaturik, Gizarte Zientzien didaktikari buruzko jardunaldiak egin ziren Nafa-

Goian, ikerlanetan jasotako irudietako bat. Ikasleek askotan frankismoan gertatutakoaren lagin bat baizik ez dute jasotzen testu-liburuetatik. Ahozko historiaren bidez, aldiz, euren gertukoen iragana deskubritzeko aukera dute.

roako Unibertsitate Publikoan. Geografia eta Historiaren irakaskuntzan ahozko iturriak nola erabili eztabaidatu zen eta Madril, Andalusia, Aragoi eta Nafarroako esperientziak azaldu ziren. Argi gelditu zen ikasleek asko ikasi zezaketela beren inguruko pertsona heldu eta zaharrengandik. Hala, 2005eko irailean Geronimokideek antolatutako ahozko iturrien inguruko beste kongresu batean abiatu zen Gogoan egitasmoa.

Frankismoaren gaia modu zuzenean jorratu ahal izateko, askotan testu-liburuetan ez dagoen informazioa, bizipen zuzenak alegia, faltan botatzen dituzte ikasgai horietako irakasleek. Hala, Nafarroako hainbat institututako Gizarte Zientzietako mintegietako





ANDER LEON



kideek ahozko testigantzeta oinarritutako proiektuei ekin zieten. Enbor horretatik sortu zen Sakana Gogoan egitasmoa. 2009tik aurrera, ikasleek burututako ikerketa lanari esker 300 elkarrizketa eta beraien transkripzioak dituen artxiboa osatu dute Altsasuko Aralarko Mikel Donea institutuan.

Iragana ikertzea, ikasleen motibazio iturri

Altsasun kokatuta badago ere, Sakana osoko ikasleak hartzen ditu institutuak eta horrek herri guztietako testigantzak jasotzea ahalbidetu du. 4. DBHko ikasleak izan dira lan hau aurrera eramateko arduradunak. “Irakasleak proposatu zigun eta 2. ebaluazioko notaren zati handiena bertatik aterako da. Aurreko ikasturteko ikaskideek lana zertan datzan esan ziguten, gogorra baina polita zela, baina egin arte ez zara jabetzen egiten ari zarenaren garrantziaz” aitortu du Joseba Claverrek, proiektuan parte hartu duen ikasle ohiak.

Gogoanek proposatzen duen lanaren egitura hasieratik finkatuta dago. Adineko pertsona bati eginiko elkarrizketa da gakoa. Aurretik galdetegia denon artean prestatu eta adostu egiten dute. Gaiak eguneroko bizitzaren ingurukoak izaten dira: eskola, gazteria, lana, bikote harremanak, Eliza, politika... Ez dira bilatzen protagonismo berezia izan zuten pertsonak, garaiko egunerokoa islatzen laguntzen duten testigantzak baizik. Elkarrizketa bideoz edo audioz graba daiteke. Grabazioarekin batera, ikasleek testuaren transkripzioa, elkarrizketa artxibatzekeo fitxa batzuk eta lau orrialdeko laburpena aurkeztu behar dute. Nahi edo ahal izanez gero, argazkiak edo dokumentu zaharrak ere atxiki daitezke. Nahia Arbizu ikaslea harrituta dago: “Ez nuen inoiz pentsatuko nire aitona bizitakoak garrantzia izango zuenik. Orain hori ere historia dela ikasi dut eta

DBH-ko 4. mailako ikasleak euren lanak eskuetan dituztela. Haien motibazioa funtsezkoa da ikerketak arrakasta izan dezan, eta horretarako kontziente izan behar dira informazioa eurak jasotzen ez badute, beste inork ez duela egingo.

bere memorian dauden gauzak ateratzean eta gordetzean lan handia egin dugula iruditzen zait”.

Ikasleen motibazioan dago arrakastaren gakoa. Beraiek egin behar dute lanaren zatirik astunena eta gogorra. Batzuetan ez dute elkarrizketatua izateko inor topatzen, beste batzuetan lotsatzen dira eta gehienetan lan handiegia aurreikusten dute. Interesa pizteko asmoz ugari dira irakasleek jartzen dituzten amuak. Ebaluazioaren notaren zati handia izateak pisua galtzen du lana aurrera joan ahala. Gazteak ikerlariak dira, iturri sortzaileak, eta izaera zientifiko horren garrantzia jakinarazi behar zaie. Pertsona arruntak dira elkarrizketatuak, ikasleek ez badute informazio hori jasotzen, litekeena da inork ez jasotzea, eta pertsona horren heriotzarekin batera barnean duen informazioa betirako galtzea. Horregatik lana ondo egin behar dute, informazio zehatza eta ona lortzea da helburua.

Ildo sentimentalera ere garrantzi handikoa da. Aitona-amona eta biloben arteko harremanak asko estutzen dira. Ikasleek inoiz imajinatuko ez zituzten gertaerak entzuten dituzte: “Inpresio handia hartu nuen amona

“Inpresio handia hartu nuen amona negarrez ikusi nuenean. Gosearena banekien, beldurrarena ere bai, baina anaia hil zela kontatu zigunean zirraragarria izan zen”

Ibai Lopez,
Altsasuko DBHko ikaslea

negarrez ikusi nuenean –dio hunkituta Ibai Lopez gazteak–. Gosearena banekien, beldurrarena ere bai, baina anaia hil zela kontatu zigunean benetan zirraragarria izan zen”. Gurasoen gurasoek bizitakoaren garrantziaz ohartzen dira eta liburuek jasotzen ez dituzten historiak ere badaudela ikasten dute. Aitona-amonek gustura hartzen dute bilobaren bisita eta beraien iraganean jarritako interesa. Familia osoko ekitaldia izan ohi da.

Ez dira gutxi lanaren kopia eskatu duten izeba-osabak edo, urte batzuk pasata, hil berria den aitonari egindako elkarrizketaren kopia eskatzera institutura gerturatu direnak. Egunen batean gaur egungo gazteen bilobek

beraien birramona-birraitonek gaztaroaren bizipenak ikusteko aukera izango dutela pentsatzeak ilusioaren irribarrea ateratzen die. Historia jada ez da liburuan dagoen zerbaitek abstraktua, errealtatean gauzatzen da, eta protagonistak beraiek eta beraien senideak dira. Frankismoak egunerokoan zeukan eragina antzeman dute, beldurra, gosea, Elizaren papera, emakumeek jasotzen zuten tratuera edo militarren eragina. Oroimenean murgiltzen dira.

Teknologia berrien erronka

Aurtengo ikasle sakandarrek bisita berezia jaso dute. Beraien lana ezagutzeko aukera izan du Laura Benadiba unibertsitateko irakasle argentinarrak (ikus 8. orrialdeko koadroa). Benadiba ahozko historian aditua da eta herrialde hartako ORT eskolako *Campus Virtual*-eko zuzendaria. Nafarroarekin harreman estua du, azkeneko urteetan maiz etorri da Geronimo de Uztariz institutuarekin duen lankidetzari esker, eta azkeneko bisitaldia aprobetxatuz Sakanara hurbildu da Gogoan proiektuaren nondik norakoak ezagutzera eta bertako gazteekin solastera. Oso emankorrak izan dira ikasleekin izandako topaketak. Laura Benadibak



Puri Barandalla etxarriarra, elkarriketatuetako bat, gaztetako argazkian.

ikasleei jakin-mina sorrarazi zien galderen bidez. Ikasleak beraien lanaren garrantziaz jabetu dira: “Lauraren bisita oso interesgarria izan da. Ikusi dugu munduko beste puntan ere gu bezala ibiltzen direla, diktaduraren inguruko testigantzak jasotzen artxiiboak osatu ahal izateko. Etorkizuneko historialarientzako tresnak sortzen ari gara. Agian gaur egun egiten dugunaren garrantzia ez da ikusten, baina hamarkada edo mende batzuk barru bai”, dio Sara Gonzalezek.

Dagoeneko 300 testigantzatik gora duen ahozko iturrien artxiboa dago Altsasuko Aralarko Mikel

Donea institutuan, herriz herri eta elkarriketatuen jaiotako urtearen arabera antolatutik. Batzuetan ikerlari gazteen aitona-amonak ez dira Sakanan jaiotakoak, eta beraz, Andaluzian, Galizian, Extremaduran edo Gaztelan frankismoan gertatukoaren testigantzak ere aurkitu daitezke bertan. Ikasleek dioten moduan, historialariek lana errazagoa izango dute etorkizunean.

Gogoan proiektuaren etorkizunak duen erronka nagusia teknologia berrien erabilera da. Teknologiarik gabe ezin gorde ahozko

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ



Mundua ulertzeko beste begirada bat, ARGIAren eskutik.



Neurria: 84,1 x 59,4 cm



Egin ezazu eskaera:

☎ 943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus

Etxe, eskola eta elkarretearako opari aproposa

Laura Benadiba
ahozko historian aditua

«Ikasleak informazioaren bila ateratzen direnean protagonista bihurtzen dira, ikerlariak dira»

LAURA BENADIBA Historian doktorea da Buenos Aireseko Tres de Febrero unibertsitate nazionalen. Ahozko historian aditua, Euskal Herrian izan da *Otras memorias* liburua aurkeztzen. Altsasun Gogoan proiektua ezagutzeko aukera izan du, eta ahazko historiaren eta hezkuntzaren arteko harremanaz hitz egin digu.

Ahozko historiari ez zaio garrantzirik eman.

Hala da, baina historia tradizionala, belau-naldiz belaualdi transmititu dena, ahazkoa izan da. XIX. mendetik aurrera, joera akademizista nagusitu zen eta testu idatziak hasi ziren lehenesten eta gainontzeko iturriak ia erabat baztertzeko. Horrek historiaren ikuspegi elitista ekarri zuen, gobernuetara, gudetara eta politikara mugatzen dena. Azken urte hauetan beste gai batzuk jorratu dira ahazkotasunari esker eta historiaren kontzeptua zabaldu egin da.

Zer da ahazko historia?

Izen berdina badu ere, Argentinan guk egiten duguna edo Altsasun egiten dutena ez da ohiko ahazko historia, ez da tradizioaren berreskurapena. Martxan jarri dugun lana ikerketa teknika bat da eta izena ingeleseratik sorturiko itzulpena da, beraiek *Oral History* deitzen diotena. Teknika honen bidez Buenos Airesen edo Sakanan iturriak sortu, gorde eta interpretatu egiten ditugu. Elkarriketatuen memorian pilatuta dauden esperientziak ateratzen ditugu eta tresna historiko bihurtu. Hori da gure lana.



Laura Benadiba Sakanara egindako bisitaldian.

Emandako informazioa ez al da subjektiboegia?

Bai, baina testu idatzia ere bai. Nork idatzi du testua? Noiz? Zertarako? Zergatik heldu zaigu testu hau eta ez beste bat? Galdera horien atzean ez da objektibotasunik sumatzen, baina testu idatziari aurreikusten zaio eta ahazkoa zalantzan jartzeko joera dago. Guri lekuko batek bere ustez gertatu zena kontatzen digu, bere pertzepzioa, eta hori, nire ustez, gertatu zena bezain inportantea da, gertaerak jendearengan utzi duen arrastoa, alegia.

Hezkuntzan lagungarriak al dira horrelako teknikak?

Zalantzarik gabe. Ikasleak informazioaren bila ateratzen dira, protagonistak dira, ikerlariak. Aldaketa handia dago zuk aurkitutako edukia edo beste batek kontatutakoa barneratzeke orduan. Gure gazteek duten ohitura apurtzen da, hau da, eseriko naiz gelan ea irakasleak zer kontatzen didan edo liburuan zer jartzen duen. Irakaslea gida da, galderak planteatu eta erantzunak beraiek bilatu behar dituzte. Horregatik soilik oso baliagarri ikusten dut Gogoan bezalako egitasmoa. Eta artxiboaren osaketa eta belaualdien arteko harremanen sendotzea gehitzen badizkiogu, emaitza ezin hobea dela uste dut.

Nafarroarekin harreman berezia duzu.

Edozein aitzakia ona da hona etortzeko eta Geronimoko lagunak bisitatzeko. Oraingo honetan liburua aurkeztera etorri naiz, *Otras memorias* izena du, ahazko historiaren inguruko metodologiak eta esperientziak biltzen dituen.

historiarik. Duela ez gutxi grabagailua asmatu ez balitz, testigantzak jasotzea zailagoa izango litzateke. Gogoaneko arduradunen eta ikasleen artean denboraren langa nabarmen handitzen da, duela hamar urte zintan grabatzen zutela esaten dietenean. Orain dena da digitala, telefono mugikorrarekin egiten dira grabazio gehienak, eta oso erraza da sarean denontzat ikusgai jartzea. Hori guztia bideratzea eta arautzea da hurrengo helburua. Izan ere, elkarriketatuek artxiboa osatzeko

“Ez nuen inoiz pentsatuko nire aitonak bizitakoak garrantzia izango zuenik. Orain hori ere historia dela ikasi dut”

Nahia Urbizu,
Altsasuko DBHko ikaslea

baimena eman dute, baina ez publiko egiteko. Horrela, webgunea sortzeko aukera hankamotz geratzen da.

Inork ez daki hemendik urte batzuetara zer jazoko den; ziur dakigun gauza bakarra zera da, etorkizun hurbilean frankismoa jasan zuen jenderik ez dela bizirik geratuko. Baina Nafarroako Sakanan behinik behin, gazte-

txoen lanari esker garai hartako eguneroko bizitzari buruzko testigantza zabala eta zehatza kontstatu ahal izango da, modu batez edo beste. ■



William Shakespeare
SONETOAK

Zeru horren infernuak

Joxan Goikoetxea

Euskerazko testua: Juan Garzia Garmendia

Kantariak:
Petti
Olatz Prat
Pier Paul Berzaitz
Amaia Azkue
Estitxu Pinatxo

Musikariak:
Txema Garcés
Michel Longarón
Iosune Marín
Maider Zapirain
Roberto Yaben
Felipe Ugarte
Juanjo Otxandorena

Dantzariak:
Montse Zabalza
Txori García Úriz
Ion Barbarin
Errezitatzaillea:
Ximun Fuchs

MARTXOAK 29 DONOSTIA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA-19:00etan

ESTREINALDIA



donostia**kultura**.com



RAY FERNÁNDEZ

«Troba zahar tradizionalaren oinordetzat daukat neure burua»

Jakinaren gainean jarri gintuzten Habanan. AEKren Korrikarekin batera zetorren artista kubatarra gure artera, Tres tanquistas y un perro taldearekin. “Fenomeno hutsa!”, esan ziguten. Kantuan entzun, eta ikusi, eta ezin ukatu: trobadore peto-petoa Ray Fernández, Kubako euskaldunen laguna, eta oraingo egonaldiaz gero, hemen bertakoena.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

El conflicto de la lengua entzun dizugu kantari anboto.org gunean. Aurkezpen txartel makala ez Euskal Herrian egiten ari zaren txangoan.

Habanan dudan lagun batek –euskalduna, Martin, Abadiñoakoa uste dut–, nik kanturen bat euskaraz ikastea nahi zuen. Lehenago musikatuak nituen Ruperren [Ordorika] kanturen bat, Fermin Muguruzarena... baina ez zegoen nik euskaraz kantatzeko modurik. Euskaraz ez dakidanez, ezin nuen hitzik barneratu, eta ez zela benetakoa izango iruditzen zitzaidan. Horrela asmatu nuen *El son de Abadiño*. Txiste bat baino ez da. Nire lagun Martini ikaragarri gustatu zitzaion, eta hemen ere askori gustatu zaio.

Euskararen egoera zaila da gurean, nahi eta ezin bizi gaituzu, eta, pesadunbre horretan zuk guri irri eginaraztea, preziaztekoa ere bada!

Korrikaren helburua horixe da, ezta? Euskarari sostengu ematea.. Txistea egin dut *El son de Abadiño* eginez, baina oro har, egoera iraultzeko joera dut, eszenatokian bederen. Besterik da mahai baten inguruan jarri eta gai bat lantzen hastea. Baina umorea bera oso gauza serioa da, eta gauza guztiei ere umorearen zukua ateratzen saiatzen naiz. Horrekin lakrikunkeriata ibiltzea gustatzen zait. Gairik dramatikoenera ere atera lekiok txinparta. Gaztetatik jardun dut horretan. Repentista ditut bi aitonak, eta esaterako, hurretik ezagutu zuten Chanito Isidró, Kubako repentista ospetsua. Chanitoren semea bera, umoregile handia... Umoro giro horretan hazi nintzen, eta itsatsi egin zitzaidan, hainbestearino itsatsi, ez baitaukat bazterrean uzterik. Are gehiago, liluratu egiten

nau umoreak, gauza guztiekin lakrikunkeriata jardutea. Baita politikarekin ere! Are gehiago politikarekin!

Are gehiago Kuban!

Are gehiago Kuban! Kar, kar...

Badago politikarekin jolas egiterik Kuban?

Bai, beti egin izan da. Matamorok egin zuen, Sindo Garayk, Nico Saquitok, Pedro Luis Ferrer-ek, Fran Delgadok berak egiten du... Jakina, gorabeherak ere baditu horrek, irratian zure berri ez ematea, telebistan zure irudia ez erakustea, hedabideek zu enoratztea. Horixe jasan behar izan dut nik, esaterako. Dena den, orain permisiboagoak dira.

Zer gertatzen da zuri entzuten dagoenak txistea ulertzen ez duenean?

Batzuetan gaizki interpretatzen da norberaren lana. Nire kasuan, askotan gaizki inter-

NORTASUN AGIRIA

Ray Fernández (1971, Las Villas-Baez, Kuba). Sukaldari graduatu zen, baina kantari da gaur egun. Telebistan ere lan egin du, *Entre manos* saioa gidatu baitzuen hiru urtez, Kubako trobaz, “bizikletak ferratzera bidali ninduten arte”. Jarraitzaile parrasta du Kuban. Uhartetik kanpo, Galizian eta Dominikar Errepublikan ibilia da. Gurean Oñati, Zarautz, Durango, Gernika, Bilbo, Andoain, Ondarroa eta Iruñea zapaldu ditu kantari, umoretsu, Miguel Alejandro Valdés baxua, Roylan Carballosa perkusioa eta Lorenzo Molina tronpetajotzailearekin.





pretatu naute. Badut kantu bat, adibidez, *El corrido del gusano* izena duena. Zenbaitek gaizki hartu dute, iraultzarekin jolas egiterik egongo ez balitz bezala, edo iraultzaren heroien lepotik irri egin. Ni ez nago horrekin ados. Uste dut ez dela inor jainkotu behar, eta jainkotu baldin bada, aldaretik jaistea dela gure lana. Uste dut denen lepotik egin litekeela txantxa, errespetu osoz egin ere. Mao presidentea, esaterako, aipatzerik ere ez zegoen. Stalin eta gainerako izorratzaile denak. Liderrak izan, ez izan, gu bezain humanoak dira denak!

Hitz egidazu “La negrita”-ri buruz.

“La negrita”! Kar, kar, kar. Aitona Quintín Moyaren gitarra zen. Han zuen, horman esekia. Ezin ukitutzea gitarra, gauza sakratua... egun batean, oso txikitan, hartu nuen arte. Eta han hasi nintzen, endredatzen. Kasik guztiz desegin nuen, eman nion tratatu txarrarekin. Zer ari nintzen ikusi zuenean, aitona eskuetatik kendu zidan gitarra, baina hurrena, gitarra sobietikoa erosi zidan eta harexekin hasi nintzen. Txarra zen gitarra hura, gero! Ukitu bakoitzean desafinatzen zuen, baina hori bai, asko irautea zuen: kosmosera atera, orbitan jarri eta jotzen segituko luke gitarra hark!

Aitonak eman zizun lezioa?

“Ez jolas egin ezagutzen ez duzunarekin!”, edo antzeko zer edo zer. Jakina, atera kontuak, nik ez nuen entenditzen zer esaten ari zitzaidan ere, eta ez zitzaidan gustatu. Denboraren poderioz entenditu nuen.

Zer besterik ikasi zenuen aitona Quintínengandik? Bada, aitona Quintín repentistarengandik baino gehiago ikasi nuen beste aitonarengan-

Inprobisazioa

“Behin, batek kritika latza egin zidan, inprobisatzeagatik. ‘Inprobisazioa bera ere, entseatu egin behar da’, esan zidan. Niri berri, falazia hutsa iruditu zitzaidan esaten ari zena. Inprobisazioa entseatzea ez da inprobisazioa. Kritika latza jaso nuen. ‘Hik egiten duan horrek ez dik bihirik balio! Profesionaltasun eskasa salatzen dik horrek!’ ‘Arao eta birao!, inprobisa ezak heuk, atrebitzen baldin bahaiz!’”.

dik. Armando Fernández zen, *El guajiro del crucero*, eta eragin handiagoa izan zuen nigan. Akordatzan naiz berarekin irteten nintzela, oso txikitan, *guarandinga* batean [herri arteko autobus txikitxo bat], eta mundu osoak agurtzen zuen. Autobusa gelditzen zen aldiro, inor autobusera igotzen zenero, matraka bera: “Hi, Armando! Esaguk zer edo zer!”. Eta aitona hamarrekok egiten hasten zen, inprobisatzen. Aitak, bestalde, hamarrekoren egitura erakutsi zidan, eta aitonaekin partekatu ahal izan nuen. Gerora jakin nuen, aitona Armandok urte bat osoa eman zuen hamarrekotan hitz egiten, praktikatzeko asmoz. Pitzatua behar du, gero! Armando nahiz Quintín analfabeto xamarrek ziren, baina ahozko kultura aberatsaren jabe. Jenialtasun handiko jendea, talentu handikoak.

El conflicto de la lengua da interneteko bertsoan, baina *El son de Abadiño* izena eman diozu arestian. Kantu horretan ari zarela, zalantza egiten ote duzun irudi du pasarteren batean, baina ez da zalantza, inprobisazioa baino, ala?

Bai, bai, inprobisazio hutsa! Habanan grabatu nuen, hona etorri aurretik. Ez nuen larregiko astirik ere, eta horrelaxe atera zen. *El son de Abadiño* asko gustatu zaie abadiñoarrei. Kantuan ari nintzen eran, inprobisatzen ari nintzen. Ate adina maratila hor ere, orde! Ni eginahalean inprobisatzen, eta musikariak berri, nire kontra, entseatzen dugunak askotan ez duelako balio, eszenatokira irten eta aldatu egiten dudalako kantua, inprobisatu. “Izorra hadi!”, ezta? Askok inprobisatzen dute, entseatu ere egiten dugu, baina tragoa egin orduko, musa esnatzen zait eta orduantxe akabo!

Habanan jakin dugu zure berri, baina ez zara han jaioa.

Ez, Las Villas-Baez-en jaio nintzen, mapan azaldu ere egiten ez den herri txiki bat da, landa lurretan, uhartearen erdian bertan. Badu muino txiki bat, denda bat, eliza, eta taberna. Abadiño baino txikiagoa! Kar, kar, kar. 3 urte nituela eraman ninduten Habana-ra, baina Baezen nintzen udaro, oporretan, aitona-amonen artean.

Sukaldari ikasketak egin zenituen.

Bai, Sevillan graduatu nintzen.

Sevillako Unibertsitatean?

Ez! Habanako Sevilla Hotelean, kar, kar, kar. Gastronomía eta Turismo Eskola Hotel Sevilla du izena. Bost ikasturte egin nituen, eta sukalde chef graduatu nintzen 1989an. Eta lanean hasi nintzen, jatetxe luxuzko onetan: 1830, Quinta 16, Diplojoya, eta katedraleko patiokoan. Hantxe, behin, oilaskoak erre nituen, eta kito!

Oilaskoak erre zitzaizkizun?

Bai. Oilaskoak eta haragia erretzea zen nire lana. Ehunen bat oilasko erretzen nituen egunean; hogeita bost, aldiko. Labea berotzen nuen eta oilaskoak erretzen nituen.

Eskatu ahala, berotu berri bat eman –bi minutu–, eta ateratzen nituen. Erre bitartean, sukaldetik saloira irteten nintzen, sukaldari jantzian, garbi-garbi, marakak eskuan eta kantari. Oso zen pintoreskoa, badakizu, sukaldaria kantuan. Egun malapartatu hura arte: kantatzera irten, eta, bitartean, oilaskoak kiskali ziren! Kalera. “Kubako sukaldari-oste txit ohoretsutik” bota ninduten, ni batere ohorerik gabe utzirik, kar, kar. Izorratu egin ninduten. Habanako malekoira joan nintzen orduan. 1995. urtea zen.

Eta malekoian?

Lehenengo, langileen jangela batean hasi nintzen lanean, baina aldiro malekoira jaitzen nintzen, gauez, ordu txikiak arte. Handik, egunero, gosariak prestatzera joan behar izaten nuen langileen jangelara. Behin baino gehiagotan, nire emazte Leniak kuzinatzen zuen goizean, ni logurak txikitzen ailegatzen nintzen-eta: arroz zaku artean etzan eta egiten nuen lo. Leniari esker onik libratu nintzen ataka gaitzetik hainbat aldiz! Bizimodua atera behar zelako hasi nintzen malekoira, eta hantxe osatu nuen errepertorioa, hango historiak bilduta. Hainbat jende etortzen zitzaidan kantuan aditzera. Berta-

.eus domeinua Korrikarekin batera dator **IZAN EUSKAHALDUN!**

Martxoaren 19tik 31 bitartean

29,95 euro

eskuratu zure **.eus** domeinua prezio berezian

Eskaintzaren informazioa: **www.domeinuak.eus**

eus gure domeinua



AZKEN HITZA

Aberri egunak

“Duela sei-zazpi urte izan zen. Troba bilkura egiten zen Habanako Masón y San Miguel grabazio estudioan. Hantxe izaten nintzen ni, eta hantxe ikusi ninduen euskaldun batek. Matxitxa esaten diote. Aberri Egunean kantatzeko gonbita egin zidan. Dirua ere agindu zigun, eta joan ginen. Han zenbait jende ezagutu nuen, jende sana. Ondoko urtean, berriz hots egin zigun. Nik baietz, baina ez genuela kobratuko, nahikoa sari genuela gonbita. Eta harrezkero hantxe izaten gara, kobratu gabe. Eta saltsan sartu nintzen, eta musean jokatzeko ikasi nuen –gaizki jokatzeko, esan nahi dut–, eta hango euskaldunen konpainia gozatzen dut. Aberri Egunik ez dut huts egiten harrezkero”.

koak ziren gehienak. Turista gutxi han orduan. Arranditsu jo zidaten txistu, eta zaratatsu txalotua izan nintzen malekoian. Gitarra hartuta joaten nintzen: “Nahi duzu kanturen bat kantatzea?”. “Zenbatean?”. “Ez, ez, nahi duzuna eman”. Eta *Lágrimas negras* kantatzen nuen, edo El Pumaren bat, eta gero: “Nahi duzu nire kantu bat kantatzea?”. Kantatzen nuen, eta batzuetan: “Kaka galanta zuan hori. Ez gehiago kantatu!”. Horrela, kar, kar. Edo alderantziz: “Besterenik ez kantatu niri. Kantatu heurreak”. Horregatik esan dizut denetarik ezagutu nuela han, arrakastaren ezia eta porrotaren ozipina, biak.

Bizimodua ateratzeko lanak oraindik Habanan...

Bai, jakina! Habanan, eta malekoian bertan. Eta talentu asko dago. Sarri, telebistan erakusten dutena malekoikoa baino okerragoa da, txarragoa, eskasagoa. Trobadore bikainak daude malekoian, ikaragarri onak, aukeraren baten zain. Baina badakizu, aitapontekoa behar, bataiatzekotan! Ez alferrik esaten zuen Mikhail Gorbaxovek talentudunei lagundu behar zaiela, erdipurdikoak berez ailegatzen direlako.

Trobadore bikainak malekoian, trobadore zaitugu zu zeu ere.

Troba zahar tradizionalaren oinordetzat daukat neure burua. Sindo Garay bat esate baterako. Hiru ume zituen: utzi bi etxean bere andrekoari, hartu bestea eskutik eta esan zion andrekoari: “Zaindu niri bi umeok, Cuatora noa”. Eta hogeitaz ibili zen Kuban barrena batetik bestera, noiz trenetan, noiz itsasontzian, bizimodua atera nahian. Hori da trobadore izatea, kosta lain kosta kantuan! Troba berria iritsi zenean, eli-

Diplo... matiko

“Garai batean Kuban dena zen diplo: diplotienda, diplojoya, diplorestaurante ...

Diplomatikoentzako lekuak.

Diplomatiko bat lagun izatea gauza handia zen

orduan: 20 dolar ematen zizkizun huskeria baten truke. Guk billetea ezkutatu egin behar izaten genuen, hura aldean zenuela harrapatzen bazintuzten, preso eramaten zintuztelako, ‘legez kontrako dibisa izateagatik’.

Billete hura gastatzekotan, berriz, beste lagun bat behar zenuen, diplomatikoa hura ere, kubatarrok ez genuen-eta diplodenda haietan sartzerik”.

tizatu egin zen gauza. Pose bat ere izan zen. Edukiak aldatu ziren, eduki politiko eta ideologikoak, alegia. Kantuak algoritmo itxura hartu zuen, zeharo egituratua zen, lirismo hutsa. Horrek kalte egin zion, duda matazarik gabe.

Silvio Rodríguez, Pablo Milanés...

Ez da Silvio, Pablo edo Santiago Feliúren kasua. Hauek jakinaren gainean ari ziren. Beste batzuk, aldiz, nahastu egin ziren, talentu handikoak izanagatik ere. “Ilargia berde ageri...” esateko, egunkaria kontatzen zizuten, behiaren karena baino luzeagoko erretolika! Niri ez zait horrelakorik gustatzen, ogia ogi eta ardoa ardo gustatzen zait niri, nahiz eta lirismo handiko kantuak ere baditudan. *El son de José-k*, esaterako, José Lezama Lima gogoan hartuta egin nuen, eta Lezama Limak halakoxe hizkuntza du. Edo *El ausente*, Eugenio Flori-rena, nire lagun Martini eskaini diodan poema da, edo *La Marina* egunkariko kazetari eta idazle bikain izandakoari egindako *Blues a Gastón Vaquero*; poeta handia bera. Horietan lirismoaren bidetik jo dut, hizkuntza landuagoa darabilt, gustatzen zait, baina ez naiz horretan iaioa. Nirea umorea da, ziria!

Gauzak aldatzen ari dira Kuban? Badira hotsak: AEBek blokeoa bertan behera utziko ote duten eta hau eta hura.

Nik ez dut aldaketarik batere ikusi oraindik, baina ez dut uste makillaje hutsa denik ere, batzuek hori diote baina. Ikusiko dugu zer datorren. Dударik gabe, blokeoa ez da aitzakia izango, inork ezin izango du blokeoa pagaburutzat hartu, kito da aitzakia hori, beti blokeoa. Hemendik atzera ezingo diogu errua blokeoari bota. Akordatuta dago jendea! ■

Gurasoek kudeatuko dute lau ikastetxe publikotako jantokia

Eskola-jantokien kudeaketa catering enpresa handien menpe dago EAEko ikastetxe publikoetan, araudiak hala sustatuta. Ikastetxeak berak bere jantokia kudeatu ahal izatea eta horren bidez elikadura osasuntsua, gertukoa eta bidezkoa bermatzea aldarrikatu dute gurasoek.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

LAU URTETIK BEHIN, ikastetxe publikoetako 2 eta 16 urte bitarteko ikasleen 92.000 menu gestionatzeko lehiaketa publikoa deitzen du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Jarritzen diren baldintzek aukerak asko murrizten dituztela, enpresa txikiei eta tokian tokiko eredu bidea ixten dietela eta ondorioz jantokietako gestioa zazpi enpresen esku dagoe la salatu du EHIGE gurasoen elkarteak. Ikastetxe kontzertatueta ez bezala, eskola publikoko gurasoek “ezin dute aukeratu zer jango duten euren seme-alabek, ezta jakien jatorria ere”, kritikatu dute.

Jaurlaritza datoen lau urteetarako baldintzak ezartzen ari den honetan, araudi berria eskatu dute gurasoek, ikastetxeak autonomia izan dezan jantoki eredu hautatzeko: “Eskola bakoitzak aukera izan beharko luke erabakitze jantokia catering edo janari zerbitzua eskatzen duen enpresa baten bitartez kudeatu nahi duen, ala jantokia zuzenean kudeatu nahiago duen”, adierazi du Lurdes Imaz EHIGEko kideak. Gaur egun, ikastetxeak jantokiaren kudeaketa bere gain hartzeak dakar administrazioaren baldintzetatik kanpo geratzea eta beraz diru-laguntzarik ez izatea.

Ikastetxeak sukaldari eta langileak zuzenean kontratatu eta inguruko denda, ekoizle eta baserritarrekin lan eginez gero, elikadura osasuntsuagoa lortuko litzatekeela ziur da EHIGE, tokian tokiko eta sasoiko produktuz hornitua, ingurumenarekiko jasangarriagoa (urrutiko elikagaiak garraiatu beharrean),

“Eskola bakoitzak aukera izan beharko luke erabakitze jantokia catering bidez ala zuzenean kudeatu nahi duen”

Lurdes Imaz, EHIGE



Inguruko denda eta ekoizleekin lan eginez gero, elikadura osasuntsuagoa lortuko litzatekeela ziur da EHIGE, tokian tokiko eta sasoiko produktuz hornitua, ingurumenarekiko jasangarriagoa eta bertako ekonomia bultzatzeko lagungarria.

bertako ekonomia bultzatzeko lagungarria eta langileen lan baldintzen mesedetan.

Irailetik aurrera, proiektu pilotua abiatuko dute lau ikastetxe publikotan, EAJ eta EH Bilduren akordioari esker. Horietan, guraso elkarteek eurek kudeatuko dute ikastetxeko jangela, eta ez catering enpresa batek.

Larrabetzuko eskola, eredu

Jaurlaritzaren diru-laguntzetatik kanpo geratu arren, Larrabetzuko eskola publikoak betitik autogestionatu du ikastetxeko jantokia. Guraso elkarteak zuzenean kontratatzen ditu langileak eta ikasleek bertako produktuak kontsumitzen dituzte, bertako sukaldetan prestatuak. “Hemengo jantokiak beti erosi izan du herriko harategian, arrandegian eta denda txikietan. Eta baserritarren produktua ere bai, ahal den neurrian. Zer da zure seme-alaben elikadura baino garrantzitsuagoa?”, kontatu digute larrabetzuarrek, *Autogestioa jangelan* erreportajearen (ARGIA, 2.225 zenbakian). Azken finean, elikaduran hezteko ere balio baitu jantokiak. ■

GONZALO GARATE PRIETO

“DIAGONAL” EGUNKARIKO KIDEA

«Kazetaritza ikasketek ez dute profesionaltasuna ematen, jakin-minak eta praktikak baizik»

Zuzendaria aspaldi hil zuten, kargu hierarkikoak ez dituztelako maite. Ez dute alderdi politikoen ez enpresa pribatuen sostengurik. Ezta nahi ere, boterea ezbaian jartzen jarraitu nahi dutelako. Herri mugimenduekin baino, herri mugimenduan egiten dute lan. Horregatik elkartu gara Madrilgo Patio Maravillasen, hanka bat kulturgune okupatuan eta bestea *Diagonal* egunkariko erredakzioan duen Gonzalo Garate Prietorekin.

| AXIER LOPEZ |

Gizarte mugimendua duzue oinarri eta helburu. Nola artikulatzen duzue harreman hori?

Kazetaritza kokatuaz [*periodismo situado* erabili du gaztelaniaz] hitz egitea gustatzen zaigu. Guk informatu ez ezik eragin nahi dugu. Hedabide handiek saltzen duten objektibotasun faltsutik ihes egiten dugu. Parte hartzen dugu. Ekidistantzia alboratu eta barrutik hitz egiten dugu, albistearen protagonistei ahotsa emanez. Informazioa lehen eskutik lortzen saiatzen gara. Batetik, maila pertsonalean, lankide asko gizarte mugimenduko kideak dira. Bestetik, maila kolektiboan, mugimenduen sarean txertatuta dago *Diagonal* eta horrek ahalbidetzen digu informazioa azkar eta zuzenean heltzea.

Berehalakotasunaren aroan, sakontasunaren aldeko apustua egiten duzue.

Hori izan da beti gure nahia: analisisidun informazio sosegatuaren bitartez albiste hutsetik harago joatea. Aurrez ezarritako soluzio hertsia alboratu eta ariketa intelektualeko denbora hartzera behartu dugu gure burua. Ez dugu albiste soiletan oinarritutako kazetaritza egin nahi, irakurketa pausatuen bitartez munduan gertatzen denari buruz hausnarketa kritikoa egiteko gonbita luzatu nahi dugu, ikuspuntu kokatua eskainiz. Polifonia sortzen saiatzen gara, batez ere ika-mika eragiten duten aferetan. Webgunearen bidez egunerokoari heltzen diogu, baina egunkarian analisisia eta sakontasuna dira nagusi.

Profesionalizaziorako jauzia kasu askotan prozesu traumatikoa izaten da. Nolakoa izan da zuen esperientzia?

“Salto Handia Aurrerantz” deitu genion Molotov-etik *Diagonaler*a pasatzeko prozesuari. Horrek ekarri zuen erronka berri hori begi onez ikusten ez zuten zenbait pertsonak proiektua uztea, baita beste berri batzuen etorrera ere. Molotov autogestionatutako proiektu kontrainformatiboa zen, “egizu zuk zeuk” filosofian oinarritutakoa. Gizarte mugimenduetako kideek beraiek ematen zuten gertatzen zenaren berri, ez zuten zertan komunikazioaren profesionalak izan, beraiek sortzen zituzten albisteak. *Diagonalek* bi subjektu horien arteko uztarketa bilatzen du: ekintzaile militantearen eta komunikazioaren profesionalaren artekoa. Batuketa horrek ez dio zertan zorrotasuna kendu behar kazetaritza lanari.

“Gizarte mugimenduetan parte hartzen duenez, ikuspuntu eta begirada lerratua izango du” dioten traba hori desagerrarazteko lan egin behar dugu gaur egun ere. Horixe da azken urteotan *Diagonalen* bizi ditugun borroka eta tentsioa: egunetik egunera are profesionalagoak izaten saiatzea.

Unibertsitateko karrerak ematen al du profesionaltasuna?

Korporatibismo izaera handia duten lanbide liberaletako afera klasikoa da hori: haien lan-eremuan inor sar ez dadin saiatzen dira defentsiban jarrita. Kazetaritzan ere gertatzen da. Kazetaritza ikasketak egin izanak ez



"Ez dakit zein puntutara arte den desiragarria errealitatea zein den ezartzeko moduko rol hegemonikoa edukitzea. Interesgarriagoa da errealitateari buruzko ikuskera konplexuagoa sortzea, ikuspuntu anitzen bidez", uste du Garate Prietok.

du profesionaltasuna ematen, ofizioa, jakintza eta jakin-mina izateak baizik. Eta horrek, jakina, praktikak ematen dizu. Hamar urteko ibilbidean profesionaltasun espazio bat sortzen asmatu dugu. Errenta, lan ordaindua eta kotizazioa bermatu ditugu *Diagonalen* lan egiten ari garen 13 lagunentzat, kazetaritza ikasketak izan ala ez.

Gobernuaren azken neurriak bereizketa hori sakontzera datoz, ordea.

Diagonalek ez du bere burua kokatzen kazetaritza herritarraren barruan, baina ukazina da figura hori oso bizirik dagoela. Gaur egun manifestazio batean telefono mugikorra aldean duen edozein bilakatu daiteke komunikatzaile. Edonork du eskura bere ikuspuntua zabaltzeko edo poliziaren errepresioa agerian utziko duen kasu baten berri emateko aukera, adibidez. Horrek *status quo* eta *establishment* delakoari zuzenki eraso egiten dio, eta ikuspuntu horretatik ulertu behar dugu sistemaren erreakzioa. Kazetari "onak" eta "txarrak" bereizteko Gobernuak hedabideen sektorerik korporatibistenarekin akordioa egin izana, txaleko identifikatzailea bezalako neurriak adostuz, kontrolean sakontzeko saiakera da. Edonola ere, irekita dagoen eztabaida da. Klean informatzen ari den jendea-

ren aurkako poliziaren erasoak etengabeak dira. Mendebaldeko demokrazia ei den sistema batean kasu onartezinak dira horiek, hainbat txostenek salatu duten moduan.

Publizitate kooperatiboa

Diru sarreraren %10 gutxi gorabehera publizitateetik lortzen dute. "Gure balore antzekoak babesten dituzten enpresak dira *Diagonalen* iragarkia jarri dezaketenak. Horregatik gure publizitatearen gehiengoa da kooperatibena eta ekonomia sozialaren eremuan aritzen diren enpresena".

Posible al da hedabideen hegemonia iraultzea aurretik aldaketa politikorik egin gabe? Ala alderantziz da?

Etengabeko tentsioa da. Elkarloturik daude. Halere, ez dakit zein puntutara arte den desiragarria errealitatea zein den ezartzeko moduko rol hegemonikoa edukitzea. Interesgarriagoa da errealitateari buruzko ikuskera konplexuagoa sortzea, ikuspuntu anitzen bitartez horrenbeste itzal izango ez duen begirada izatea.

Daukagun arazorik handienetakoa da zenbait proiektu politikotako harrokeria. Haien espaziotik bakarrik dena aldatzeko gai direla uste dute eta hori ezinezkoa da. Sistemaren korapilo batzuk askatzeko baliagarriak izan daitezkeen gaitasunak dauzka espazio bakoitzak, eta soilik horien guztien batuketaren bitartez lortuko da egiturazko eraldaketa.

M15 mugarria izan da, baita esparru komunikatiboan ere. Nola bizi izan duzue?

Mugimendu edo, zenbait egilek deitu bezala, giro horren agerpenak gainezka egin digu.

Autogestioa, kooperazioa eta asanblearismoa ipar

HAMABOSTEAN BEHIN egunkari bat kaleratzen dute eta egunero www.diagonalperiodico.net webgunea berri-tzen dute. 5.000 harpidedun inguru dauzkate Espainia-ko Estatu osoan banatuta eta sare sozialetan komunita-te trinkoa osatu dute: 105.000 lagun Facebooken eta 72.000 Twitterren. Egunkaria Madrilén kioskoetan sal-tzen da eta hortik kanpo liburu-denda, gaztetxe eta gune alternatiboetara jo beharko du irakurleak. Bi erre-dakzio-orde dituzte Sevillan eta Asturiasen. 13 laguni ematen dio soldata hilero, baina kolaboratzaile sare nasaia da haien zutabe nagusia. Martxoaren 14an ospa-tu dute haien 10. urtebetetzea, jai giroan (argazkian).



DIAGONAL

Errealitatea eta gizarte mugimenduak analiza-tzeko genituen egiturak, egun batetik bestera, goitik behera erori eta iraungi zitzaizkigun. Proposamen eta ekimen erauntsi batek gaina hartu zigun. Guk hori bizi genuen gizarte mugimenduen parte izanik, beraz egin kontu gainerako hedabideei zer gertatu zitzaien. Mass mediak askoz galduago zeuden eta horrek posible egin du gure burua berrantolatatu eta, arian-arian, gertatzen zenari buruzko analisi fin eta landuagoa egin ahal izatea.

Saturazio informatiboa nabaria da, baina aldi berean gizarte mugimenduen pre-sentzia hedabide nagusietan hutsaren hurrengo izaten jarraitzen du. Gauzak horrela, zentzurik al du lizentzia pribatiboak erabiltzeak?

Jakina ezetz. Gure apustua Creative Commons-en (CC) logikan lan egitea da argi eta garbi. Harrigarria da hedabide handiek lizentzia libreei buruz duten erabateko ezjakintasuna. Sare sozialetako edo *Diagonal* bezalako hedabideetako argazkiak erabiltzen dituzte baimenik eskatu gabe. CC eta doakotasuna nahasten dituzte. Informazio libreak ez du zertan doakoa izan behar. Zabalpena, kopiak eta nahasteak sustatzea ona da, baina atzean lan handia dago, izan musikan, bideo-gintzan, testuetan edo arte adierazpenetan. Aitortu eta aintzat hartu behar da lan hori. Horrexegatik oso interesgarria da CC lizen-tziek, eta kultura librearen munduak oro har, sustatu duten ideia: “Lizentzia askea duen edozer erabiltzen baduzu, antzeko lizentzia libre bat baliatu beharko duzu zure moldake-ta zabaltzeko”.

Kazetaritzan norekin duzue harreman ona?

Diagonalen anaiatzat sentitzen dugu Katalu-niako *La Directa* astekaria. Nolabait esatea-

“Diagonalek bi subjektuen arteko uztarketa bilatzen du: ekintzaile militantearen eta komunikazioaren profesionalaren artekoa”

rreren, gure kontrapartea da Herrialde Kata-lanetan. Bestaldek, *Diagonalen* oso antze-rakoak diren zenbait proiektu daude gaur egun eta, eraginkortasun politikoa eta heda-pena hobetzeko, indarrak batzearen alde gaude. Hori dela-eta *Públicok* paperezko edi-zioa ixtean hainbat langilek sortu zuten *La Marea* kooperatibarekin, *Diario.es* hedabi-dearekin eta *Mongolia* aldizkariarekin harre-manetan gaude. Hiruok elkarlanean Filtrala sortu dugu. Informatikari batzuek garatu duten plataforma da. Ustelkeria kasuak salatzeke moduko informazioa duten per-tsonen segurtasun osoz, arrisku-rik izan gabe, zabaldu dezaten. Elkarlanaren bidea hobetsi dugu, sarri hedabide “txikiak” artean dagoen lehia gainditzeko. Elkar hartu behar dugu eta elkarri lagundu.

Noraino heldu nahi duzue?

Diagonal, eta komunikazioa oroko-rreran, eraldaketa sozialerako tresna gisa uler-tzen dugu. Esan gabe doa, eragiteko gaitasun handia izan nahiko genuke eta askoz jende gehiagorengana heldu. Ezagutzen gaituzte-nak gizarte mugimenduetan edota kazetaritza alternatiboan inplikaturik daude edo gertuko-ak dira nagusiki. Nekeza da harago joatea baliabide ekonomiko urriak izanik. Madrilgo Complutense Unibertsitateko soziologo Jesús Ibáñezek, *El País* egunkariak ari zela, esan zuen: “Komunikabide handiak errealita-tea sortzeko tresnak dira, ez bazara haietan agertzen, ez zara”. Haiek dira erabakitzen dutenak nor den errealitatearen parte eta nor ez. Horregatik, *Diagonalen* lana da errealitate hori zabaltzea eta handitzea. Gero eta pertso-na gehiagok izan dezan hedabide handiek ezkutitzen duten beste errealitatearen aurpe-gien berri. ■





DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Ez al gara espetxeetatik aterako?

ZALANTZARIK GABE espetxeak dira, langabezia eta krisia izan ezik, gure albistegietan eta solasaldietan gehien errepikatzen den gaia. Azken egunotan, adibidez, hainbat berri izan ditugu hizpide, beti espetheen inguruan. Denek merezi dute hausnarketa.

Jonan Fernandez Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkariak bisita egin dio Rafa Diezi. Zentzuzkoa dirudi horrelako ekimen batek, etorkizunari begira hainbat presoren egoera eta gogoeta politikoak ezagutu ahal izateko. Baina, bisi-taldia zakarki bukatu zen, funtzionario bati –zuzendaritzari, beraz– Diezek Fernandezi erakutsitako papera atsegin ez zitzaielako, dokumentua politikotzat jo zuen eta. Gogor eta argi hitz egin du horretaz Fernandezek. Baita gogorki eta manipulatu hainbat hedabidek ere, ETArekin bildu zelakoan Eusko Jaurlaritzako idazkaria.

Auzitegi Gorenak oso interpretazio zorrotza egin du Europako arauari buruz; Auzitegi Nazionalaren arabera okerra. Ez ahaztu iazko abenduan magistratu horiek Espainiako Gobernuaren aldetiko presioak salatu zituztela gai honi buruz. Kezkagarria, ezta?

Auzitegi Gorenak bertan behera utzi du Alberto Plazaola presoaren askatasuna, Auzitegi Nazionalak erabakitakoa. Auzitegi Gorenarentzat atzerrian betetako espetxe zigorrak ez zaizkie metatu behar Espainian betetakoei, eta beraz, Auzitegi Nazionalak eman zuen ebazpena baliogabetu da, Plazaolak espetxera itzuli behar du. Ustezko filtrazioari esker, presoak alde egin du eta ezinezkoa izan da ebazpena betearaztea.

Valentin Lasarte kalean da, hemeretziru urteko zigorra bete eta gero. 30 urteko espetxe zigorra ezarri zion Auzitegiak, Gregorio Ordoñez eta Fernando Mugica, besteak beste, hiltzeagatik. Lasartek Langraitz bidea hartu zuen eta birgizarteratzeko bidea egin du: aukera horrexegatik Euskal Preso Politikoen Kolektibotik (EPPK) kanporatua izan zen. Horren harira Rafael Catalá, Espainiako Justizia Ministroa

“harrituta” azaldu da, epai batzuk “epel-tzat” joz, eta Consuelo Ordoñezek, COVITEko presidenteak eta Lasarteren biktimabaten arrebak, injustutzat jo du, justiziarekin kolaboratzeko borondaterik agertu ez duelako.

Hiru gertaera horiek hausnarketara gonbidatzen gaituzte. Alde batetik, gizarte osoak poztu beharko luke preso batek, bere zigorra beteta –zegozkion espetxe onurak kontuan harturik– kalean dagoelako, eta kasu zehatz honetan, gizartera itzultzeko asmoa adierazi duelako –gogoan hartu behar dugu, zentzu horretan, Consuelo Ordoñezekin bildu zela espetxean–. Lasarte, beste hainbat bezala, euskal presoak izan da, eta gaur egun euskal herritar libre. Ezingo du inoiz bere iragan krudela ezabatu, noski, baina gizarte honek egindako delituei ezarritako zigorra bete du eta bere jardueraz hausnartu ahal izan du. Ez dut ukatuko bere biktimentzat eta haien senitartekoentzat injustua izan daitekeela, baina, beharbada, biktimen “mendeku” beharra eta gizartearen “justizia” beharra ez datoz bat. Larriagoa da Justizia Ministroak bere harridura azaltzea: horrek ez dauka inolako justifikaziorik eta azalpen bat baino gehiago eman beharko luke horri buruz –beste herrialde batzuetan dimititzera derrigortuta egongo zen–.

Plazaolaren ihesak ez dauka justifikaziorik. Ulertzekoa da inork espetxeratu nahi ez izatea, baina norberaren ardurei eta erantzukizunei aurre egin behar zaie. Halere, aurreko batean esan nuen moduan, Auzitegi Gorenak oso interpretazio zorrotza egin du Europako arauari buruz; Auzitegi Nazionalaren arabera okerra. Ez ahaztu iazko abenduan magistratu horiek Espainiako Gobernuaren presioak salatu zituztela gai honi buruz, hain zuzen ere. Kezkagarria, ezta?

Fernandezenak ere ez dauka justifikaziorik, baina espetxeetako “erregimena” omen da. Gogorra, ezta? Zergatik ezin da politika egin espetxeetan, birgizarteratzeko bide ezin hobea baldin bada? Akaso beste politika bat eskatzen zaielako presoek? Baina gizarteratzea ez da, inolaz ere, norberaren ideia politikoak aldatzea, giza eskubideak errespetatzea baizik, besterik ez. ■

BERTSO BERRIAK

Ahuntz deneko zubi

I

Aretxabaletako
urtarril-ordaina
asteburu hirukoitz
mamitsu apaina
historia, sormena,
enpresa... bikaina!
kantuz egingo dugu
birpasa labaina
bertsoek ezin dute
dena esan baina.

II

Paulo Iztuetaren
berba bakoitzeko
katebegi bat doa
katea luzeko.
Euskal Herria langai
eta betaurreko
gertakariak dira
interpretatzeko
joan-etorkizunak
bidean lotzeko.

III

Historia guretzat
bete baita nekez
ez zegoen muga bat
osatu du kaltez
hegoaldea bitan
banatu bi atez
tarteko marra herri
harresituz betez
zatiketak hor dirau
kasik mila urtez.

IV

Historia da jantzi
erantzi ezina
urteen ta mendeen
itxuran egina
lehengoak oraingoan
dauka eragina
urruneko sustraia
dugu zubigina
belaunaldi artean
doan bizi mina.

**Juanjo
Respaldiza**



DOINUA:
Agur sagar beltzaran.

V

Arana eta Campion
hiri eta agro
burdina-zulo edo
gari eta ardo
azalean alde
apur bat badago
begi osagarri bi
dira sakonago
gu beti izan gara
bat baino gehiago.

VI

Mixel Etxekopar da
kultura-isuri
Xibero, Xiru, Xora
txirula txiruri
maskarada, pastoral
gorri, beltz ta zuri
amak esaten dio
ta hala dirudi
ari dela "egiten
ahuntz deneko zubi".

VII

Etxahun Iruri maisu
harturik gaztetan
belarriz trebatu zen
tuntun-txiruletan
gerora solasean,
urean, haitzetan...
esanean ez bada
ixiluneetan
musika entzuten du
soinu guztietan.

VIII

Sortu, hazi ta egin
eman, hartu, biba!
Hebentik Elkartea
Mauleko distira
libertatearentzat
sosak eskas dira
Xiberoa dantzatzuz
bizitik bizira
inork eskatu gabe
egiten ari da.

IX

Sors aita, Sors semea
Jose Mari, Gexan
familia soka bat
liburuen plazan
Elkar Fundazioa
daukate arnasan
zenbaki hutsak ezin
irabazi izan
arimak ere leku
behar du enpresan.

X

Hiru berbatan dagi
proiektuak zita
profesionaltasuna
lehen erreminta
militantetasuna
erroen gonbita
ikusgarritasuna
emaitza polita
merkatuan jateko
geuretik hasita.

**Mondragon Unibertsitatearen
Euskal Kulturgintzaren Transmisioa
graduondokoan jarritako sorta.**

Iñaki Antigüedad

AMAIURREKO DIPUTATU OHIA ♦



DANI BLANCO

Aldaketari puntua jartzen

KLIMA ALDAKETAREN KONTUAN kontzeptu bi dabil-tza ahoan, bestelako aldaketetan ere kontuan hartze-koak. *Mitigation*, hau da, gerora izan daitekeen aldake-ta arintzen saiatu, kausetan eraginez aldaketa leuntzeko; funtsean, tenperatura igoera mugatzea. *Adaptation*, nahitaez bidean den aldaketara egokitzea, aldaketa bat izango denez gure jarduerak ondorioeta-ria moldatzea. Finean, bata datorre-na leundu, bestea datorrenera ego-kitu. Bi jarrerok bestelako aldaketetan ere sumatzen dira, norabide desberdinetan bada ere.

Gatozen euskal prozesuaren kli-mara, gehiengoarentzat ezinbesteko aldaketa eskatzen duen prozesura. Hainbat joera dira. Estatua eta *statu quo*-a mantendu nahi dutenak lehen bidetik ari dira, zatar ere, lurralde hauetan funtsezko aldaketarik izan ez dadin, hemengo klima, berotzera heldu gabe, epel motelean manten-tzeko. Egokitzea dute programa bakarra, indarrean duten klimak aurretik ezarritako eszenatokian egoki-tuta bizitzea. Puntu eta azkena.

Euskadi hitzaren bueltan ari direnek egokitzea dute helbide, eta helburu. Iraungita beharko lukeen zerrenda zaharraren bete gabeko eskumenak eska-tzen segitzea eta horien bidetik egokitzea. Egia esan, oso eszenatoki murrizta da hori zerukoa leman dute-

nentzat. Euskal Bidea proposamena kritikatu dute horiek, mespretxatu kasik, egonkortasuna hausten duelako; argi dago zer eszenatoki nahi duten egonkortu, kudeaketaren pentsamolde bakarrekoa. Puntu eta koma, etengabe.

Oraingo eszenatokietan hasiak dira han-hemen beste protagonista batzuk agertzen, aldaketen harira.

Klima politikoak samindutakoen haserre bideratu nahian, *statu quo*-a aldatu nahi bai, baina Estatuaren tamainaz mutu antzera. Horretan eten-puntuak... Baina aldaketa horrek bere horretan ezin subiranis-ton beharra ase, azken batez klima kontzeptu zabalak klima zehatz asko hartzen ditu eta bakoitzak bere prozesu konstituziogilea behar du.

Eta guk, burujabetza nahi eta behar dugunok, planetako mundu guztiak arriskuan jarri dituzten era askotako klimei bertatik aurre egin

nahi diegun ezkertiarrok, eskumenez eta gaitasunez egin ere, aldaketa bultzatzen segitu behar dugu, leun-du gabe indartu, tarteko helmugetara betiko egokitu gabe. Azken batez, serio, puntu eta apartekoa da gurea, helburuz. Euskal lurraldeen etorkizuna idazte-ko dago, bai; prozesuaren bide-orria orria idaztea da bidea, eta horretan funtsezkoa da puntuai zein segida ematen zaien... ■

*Euskal Bidea
proposamena kritikatu
dute horiek, mespretxatu
kasik, egonkortasuna
hausten duelako; argi
dago zer eszenatoki nahi
duten egonkortu,
kudeaketaren
pentsamolde bakarrekoa*

XDZ



Joanes
Etxebarria



KAZETARIA

Autokonfiantza

ZER DEN, HALERE, norberak bere burua konbentzitzea ez dela gai izanen. Beharra sentitzea, baina etsipenaren parean amore ematea. Zer den sentitzea giharrak gai direla behar den indarra egiteko, baina ahul usteko, mugitu gabe gelditzea. Zer den depresioa, zer den konfiantzarik eza. Zer den parekoak maitasunez eskua luza-tzea eta ez ikustea. Zer den geroa ilun ikustea.

Ez dakit zerk egiten duen etsipena, ez dudalako ene larrutik bizi. Baina badakit —eni bederen— zerk ematen didan auto-konfiantza. Besteak, taldeak, komunita-

teak. Badakit zerk konbentzitzen nauen gai izanen naizela. Badakit zerk itotzen duen etsipena. Badakit zerk egiten duen lotura mugitu nahiaren eta giharren artean. Zerk ematen didan konfiantza: besteak, maitasunez eskua luzatzen dida-nak. Eta herri ttipi honetan badakigu besteak eskua luzatuko digula.

Sinetsi nahi nuke auziperatu orok, badakielako bere egoerak berak garaipen keinuak dituela, ez duela etsipenera jotzen, baina dudak badituzten halere. Aldiz, sinesten dut taldeak ematen diela kon-fiantzarik handiena. ■



Joxe Iriarte, *Bikila*

♦ IDAZLEA

Saharako maratoian

AURTEN BERROGEI URTE bete dira, Espainiako Estatuaren konplizitateaz, Marokok Mendebaldeko Sahara okupatu eta kolonizatu zuenetik. Harrez geroztik, saharar herriaren zati bat errepresio zital eta bidegabearen menpean bizi da, eta bestea, Aljeriako *hamadan* edo basamortuan. Sahararrek, etsai edo areio bati madarikazio bat bota nahi diotenean, honela egiten dute: “Jainkoak eman diezazula *hamadaren* egarria”.

Duela hamabost urte, Sahara maratoia abian jarri zenetik, lagun baten eskaerari men eginez, hartu nuen parte lehen edizioan, maratoi erdia eginez. Harrez gero, maratoi osoa (2005), hamar kilometro (2010), eta bost kilometro (2015) egin ditut.

Denbora horretan saiatu naiz saharar herriaren egoeraz eta daraman gatazkaren nondik norakoaren jabe izaten. Zaharrak berri! Aurten ere, entzun ditugu gazteen ahotik gerra berpiztearen aldeko iritzi sutuak. Fronte Polisarioa ere Nazio Batuen Erakundeak apirilean zer erabakiko duen zain dagoela, zirt edo zart egiteko prest dagoela diote. Nire uste

Duela gutxi txiringito bakan batzuek osatzen zituzten eremuak, egun, ia denetarik dagoen gune komertzial bilakatu dira, Carrefour komertzioak eta guzti. Jaimeetan ere nabari dira aldaketak. Telebistak, ia norbanako adina mugikorrek

apalean, horrek denak lelotik gehiago du errealitate-tik baino.

Munduan ez da giro sahararren alde. Sahara inoiz baino desagertuago dago gatazka konpontzeko agendatik. Maratoia bera jada ez da notizia. Oso nabarmena egin zait zenbat zorroztu diren segurtasun neurriak. Baina, ez borroka prestaketaren adierazle, infiltrazioen beldurrez baizik. *Mundubateko* hiru *kooperante* bahitu zituztenetik marokoarren esku sartze edo sabotajeen beldur bizi dira sahararrak.

Aldaketarik handiena, kanpalekuen bizimoduan eta antolamenduan antzeman dut. Harritza, sugeak eta harea besterik ez dagoen tokian, kanpo laguntza behar ohi da bizi ahal izateko: janaria, arropa, eguzki plakak... Baina orain arte dena zen behin-behinekoa. Egun, hori horrela denik ezin ziurtatu. Errefuxiatu kanpalekuak asentamendu bilakatzen ari dira. Libanon bezala. Hots, argindar sarea antolatzen ari dira. Aljeriako Gobernuak halako inbertsioa egiteko, arazoa luzerako doan seinale.

Duela gutxi *txiringito* bakan batzuek osatzen zituzten eremuak, gaur egun, ia denetarik dagoen gune komertzial bilakatu dira, *Carrefour* komertzioak eta guzti. *Jaimeetan* ere nabari dira aldaketak. Telebistak, ia norbanako adina mugikorrek. *Wilaya* direlakoetan harrigarria da automobilen hazkundeak eta horrek sortu duen trafiko kaosa. Eta horrekin hauts itogarria!

Lehenengoetan, eguzkia desagertu bezain pronto izarreriari begira egon nintzen harri eta zur. Aurten berandu arte ez zen desagertzen zerua ezkututzen zuen hauts txapela. ■



GUERE EUSKAHALDUN!

Martxoaren 19tik 29ra Korrika 19ren jarraipen berezia egingo dugu!

www.hamaika.eus | korrika.hamaika.eus

«Denok gaude biolentziaren gurpil horretan sartuta»

Esaten du hiztegiak “biolentzia” hitza latinezko “*violentia*” hartatik datorrela, “*violentus*” du adjektibo, hau da, “etenik gabe indarra erabiltzen duena”. “*Vis*” ageri da haien jatorrian, alegia, “indarra”. Euskaraz bortxakeria, bortizkeria, indarkeria, biolentzia eta beste ditugu. Biolentzia du gai Unai Elorriagaren *Iazko hezurak* (Susa, 2014) narrazio, nobela, saiakera, gogoeta, kronika... min eta ezeroak.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkia: Zaldi Ero

Biolentzia, bortxakeria, indarkeria... Algortara heldu, herrira sartu, bideari segi, eta hantxe, bandera espainol handiarekin egin dugu topo: Guardia Zibilen kuartela, ez txikia, auzoen etxartean. Haien presentzia armatuak ere badu biolentziatik.

Guretzat bai. Egunero pasatzen naiz hortik, alaba ikastolara daramadala. Eta txikitan ere, egunero pasatzen ni hortik, ikastolatik itzuleran batik bat. Eta inoiz ez naiz ohitu, ezta ohituko ere, banderatzar hori eta morroi horiek metraileta eskuan ikustera. Presentzia horrek bortxatu egiten zaitu neurri batean. Handik pasatu beharra guretzat ez da eroso, eta, nire ustez, eurentzat ere, Guardia Zibil norbanakoentzat, ez da eroso. Bortxa egoera bat da, nork edo nork kanpotik agindutakoa, eta bertoko aktoreok, berriz, zeharo deseroso gaude.

Zenbateraino zaizu inportante liburu baten hasiera?

Normalean, modu linealean idazten dut, hasi eta amaitu, nahiz eta buruan egitura bat izaten dudana, eta egitura horren arabera nahastu dudana idatzitakoa. Amaitu eta gero, berriz, hasierako paragrafoak berridazten ditut. Beti. Oso inportantea iruditzen zait liburuari tonua emateko garaian. Hasiera. Aurreko lau liburuetan, idazten amaitu eta hasierara itzuli izan naiz beti, tonua birmoldatu guran. *Iazko hezurak* honetan ez dut horrelakorik egin beharrik izan, hiru saiakera egin nituelako aurretik, eta hirugarrenean nik nahi nuen moduan harrapatu nuelako tonua.

“Egunero pasatzen naiz Guardia Zibilaren kuartel paretik eta inoiz ez naiz ohitu morroi horiek metraileta eskuan ikustera”

Lehenengo paragrafoa aldatuko dizut hona: “Irene Arriasek ia zentimetro eta erdiko urrutia egin zion amari jaio zenean, Algortan, 1971ko urtarrilaren 25ean. Odol asko eta desberdinak nahastu ziren amaren izterretatik, likido lodi batzuk ere bai beharbada. (...) Hori guztia Algorta erdi-erdian, trenbidetik oso hurbil, Avenida del Ejército esaten zioten kalean, Bilboko Basurtuko ospitaleari Hospital Civil del Generalísimo esaten zioten bezala, urte bi geroago Eustakio Mendizabal *Txikia* hara hiltzera eraman zutenean, bala zulo bat bizka-

rean eta beste bat buruan, frontalean sartu eta okzipitalean kanporatu zena”.

Liburuaren laburpena dago hor, sintesi modukoa. Lehenengo lerroan bertan da odola, nahiz eta beste odol mota bat izan, jaiotzarena... Indarkeriaren inguruko gogoeta egiten

ahalegindu naiz. Gogoeta egiteko, batzuetan geurera mugatzen gara. Edo, kontrakoa, oso urrunekora. Estilo trinkoan dago idatzita liburu, eta laurhun orritan gauza asko kontatu ahal da. Nire ahalegina biolentziari alde guztietatik begiratzea izan da. Edo nik sumatu ahal ditudan aldeetatik, beste batzuk ere izango baitira. Horretarako, ondoan ikusi dugunera eta urrunekoenera jo dut: Algorta, batean; Ruanda, bestean. Baita tartekoak ere... Hego Amerikakoa ez da hain urruna, ezaguna da, irakurri dugu horretaz. Europakoa ere ez da horren urruna. Asiakoa, berriz, ikaragarria da... Dena dela, halako batean, idazten ari nintzela, zerbaitek ihes egiten zidala sumatu nuen, nik kontatu nahi nuen



Indarkeriak ertz ugari ditu eta horietan bilatu du Elorriagak *lazko hezurak* idazterakoan: “Inor ez dagoela libre adierazi nahi nuen. Urrun dagoela iruditzen zaigun biolentziak edozein momentutan jo gaitzakeela gu ere”.

ezin zela kontatu saiakera modura, eta horregatik jo nuen atalen artean ipuinak tartekatzen. Gauza batzuk fikziorik fikzioenetik kontatu behar ziren, eta nire iritziz, ipuina da fikziorik fikzioena. Mauthausenen egondakoak lehenengo pertsonan kontatu ahal ditu bizi izandakoak; nik, aldiz, bizi izan ez ditudanez, fikziotik kontatu behar ditut, eta horregatik baliatu ditut ipuinak.

Algortatik abiatu zara indarkeriaren bidean, munduaren zabaleko bortxakeria kontatzeraino.

Kontuan izan dut guk gogoeta handia egin dugula biolentziaren inguruan, ondoan eduki dugulako, lagunak, ezagunak, familiartekoak jo dituelako egoerak. Gogoeta egin dugu *gure* biolentziaren inguruan, baina nik hori hobeto ulertzeko, sumatu nuen onena beste biolentzia batzuk aztertzea izango zela, diferenteak ote ziren, guretzat terriblerik zena zelan gertatzen zen beste leku batzuetan. Aztertu, eta konturatzen zara gurea ale bat besterik ez dela. Zelan uztartu gurea eta besterena? Horixe zen nire lana, baina ez ondorio batera

“Gerora besterik idatziko ez banu bezala idatzi dut liburu hau”

heltzeko, egoerak bata bestearen ondoan jarri eta ikusten dena agerian uzteko baizik.

Badago, izan ere, ondorio ateratzerik?

Uste dut ezetz, baina horixe da joera, ondorioak ateratzea. Are gehiago gaur egungo gizarte arin honetan, sintesia baino nahi ez duen honetan. Literatura, aldiz, hausnarketarako lekua iruditzen zait, buru barruan zer edo zer mugiarazten dizuna, eta zabaltzen zaituena. Oraindik orain jakinarazi zuen Oliver Sacksek gaitz sendaezina jo duela eta laster hilko dela. Sacksek berak hainbat gogoeta egin du heriotzaren inguruan, eta, hala ere, seguru nago, orain, heriotzako orduan, orain artean egin ez dituen gogoetak ere egingo dituela. Heldulekurik ez da, ez dakigu non gauden, nor garen... gogoeta eginagatik ere, argi izan behar dugu ez goazela inora.

Lau atal ditu liburuak. Lehen hirurak dira eite batekoak; horietan, Irene ezagutuko dugu, atzerriko biolentzia egoera bortitzak berriuko dizkiguzu, euskal baladak ere lotuko dituzu

narrazioaren harian, zeure irakurketak ere ageriko dira...

Gerora besterik idatziko ez banu bezala idatzidut liburu hau. Aurreko liburuetan gauza asko kontatzen nuen, baina beti uzten nuen atalen bat etorkizunean idazteko. Oraingo honetan, aldiz, ez; dena bota dut, erraietan dudan guztia. Hain zuzen, inoiz ez dakizulako noiz etorriko den azkena!

Lehenengo hiru atalak era batekoak dira; aldiz, guztiz bestelakoa da laugarrena, lanari erremante emanez bezala.

Beti esaten dut: lehenengo hitza jartzen dudana orduko, badakit zein izango den liburuaren azken hitza. Jakina, beti izango da aldaketa txikiren bat edo beste, egitura moldaketak han eta hemen, baina hezurdura nagusia eginga dut hasiera-hasieratik. Laugarren atal horrekin amaitu nahi nuen liburua. Indarkeria egoera jakin eta zehatz batera jaisten naiz: inor ez dagoela libre adierazi nahi nuen, denok gaudela biolentziaren gurgil horretan sartuta, eta edo noiz edozelan gertatu, edonon, ahal dela indarkeriak gu jotzea, hau da, urrun dagoela iruditzen zaigun biolentziak edozein momentutan jo gaitzakeela gu ere. Eta gu ez bada, Suitzako bat, adibidez. 1921ean juduak oso aberats bizi ziren Alemanian eta Europan. Ez zuten berehalakoan pentsatuko zer etorriko zitzairen. Berdin tutsien eta gainerako kasuan.

Izaretan ipuinak berak bakarrik liburua mereziko luke. Ipuin horrek eragiten duen ondoreza!

Horixe esan zidan andreak. Berak irakurri zuen liburua lehenengo, eta ipuin horrek gorputzaldi txarra egin ziola esan zidan. Beti izan dudana beldurra —alaba jaio zenetik, batez ere— kontatzen du ipuinak, eta hori ere bota dut, behintzat. Oso gustura gelditu nintzen ipuina idatzi nuenean.

Heziketa dugu beti aipagai, baina zure liburuan, Ruandako tutsiak bestela dio, hau da, heziketak ez duela pertsona hobetzen, baizik eta eraginkorrago bihurtzen.

Karikatura hor dabil, diktadoreak jende xehea direla, ezjakinak... baina zenbaiten biografiak aztertu eta garbi ageri da jende jantzia dela, jende ikasia. Ruandar irakasle batek esaten du hango genozidioa unibertsitatean prestatu zela: zenbait irakasle estrategia bat landu zuten, irratan propaganda zatiak, esaldiak, zabaltzen hasteko. Estrategia horren helburu zen hutuak apurka-apurka kontzientziatzea, berotzea, ondokoak hiltze-

ko. ButaReko unibertsitatean asmatu zuten estrategia.

Ez dago itxaropenik, orduan? Biolentziarekin bizitzen ikasi behar dugu?

Heziketari dagokionez, ematen du unibertsitatean produktiboago izateko, enpresak gero eta diru gehiago irabazteko, munduan barrena hedatzeko hezten dela pertsona. Hortaz, bestelako heziketa bat beharko genuke. Nik uste biolento ez izaten ere ikasi egiten dela. Hala ere, lehiakortasunera bideratuta baldin badago gure lana, “ni gainetik, zu azpitik”, ez da onik etorriko. Eta unibertsitate handienak horretan dabilta.

“Biolento ez izaten ere ikasi egiten da. Hala ere, lehiakortasunera bideratzen baldin bagara, ez da onik etorriko”

Aurkezpenean esan zenuen —berba erdika, gura baduzu—, gehiago ez ote duzun idatziko. Edo argitaratuko. Bazterrak astindu ditu horrek, hein batean.

Nik neure modura ulertzen dut literatura: ez da katedra bat, behin ailegatuta, bertan gozo egotekoa... ezta urtero nahitaz zer edo zer argitaratu beharra ere. Niretzat oso gauza berezia izan da umetatik. Ez nago urtero liburu bat argitaratzeko eta edozeri buruz hitz egiteko prest. Astiro idatzi nahi dut, eta zer edo zer emateko dudanean, eman. Horretarako, ezin zara profesionala izan, ni orain artean izan naizen moduan. Modu horretara, egoera kafierra sortzen da, zuretzako oso inportantea den zerbaite, zure lanbide eta ogibidea den hori, hari mehe batzuetatik zintzilik dago. “Zertan nabil ni hemen denbora alferrik galtzen? Nahiago dut bestelako lanen bat egin, eta idatzi, nire existentziaren zer inportante moduan, baina nire lanbide egin gabe”. Horixe pentsatu nuen, eta horretan nabil, bestelako bideak jorratzen. Bitartean, idazten segituko dut, eta zer edo zer inportantea emateko dudanean, argitaratu egingo dut, dela bost, zazpi, hamar edo hamabi urterik behin. ■

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

2015

FINALA

Nafarroako Bertsolari Txapelketa

ELIZONDO - PILOTALEKUA
Martxoak 28, 17:00

JULIO SOTO



XABIER TERREROS



ENEKO LAZKOZ



AIMAR KARRIKA



ANDER FUENTES "ITTURRI"



ENEKO FERNANDEZ



OSKAR ESTANGA



JULEN ZELAIETA



Antolatzailea



Laguntzailea

argia

Sarrerak salgai:
www.bertsosarrerak.eus

www.bertsozale.eus

Hizkuntza politikarekin katramilatu da Kultur Hiriburua

Bizikidetza bezalako printzipioak dira proiektuaren ardatza, baina Donostia 2016ko patronatuan lehiak agintzen du. Espainiako Kultura Ministerioak auzitara eraman du proiektua Kontseiluak antolatuko duen egitasmo batengatik. Zergatik sortu den halako ika-mika? Espikatzen saiatu gara.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

ISTILU GUTXI zituen bestela ere, eta otsailaren 11n Espainiako Kultura ministerioak jarritako demanda zibilarekin fronte berria zabaldu diote Donostia 2016ri. Jose Ignacio Wert buru duen sailak Donostiako lehen auzialdiko epaitegira eraman du Hiriburu Kulturala, Kontseiluarekin hitzarmen bat sinatzeagatik hizkuntza gutxituei buruzko goi-bilera antolatzeke.

Lehen kolpean, espikatzeko ere zaila da: parte hartzen duzun erakunde baten kontra salaketa jarri? Albistea egunkarietan lehertu ondoren klima nahasian bildu ziren joan den asteazkenean proiektuan parte hartzen duten lau erakundeak –Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Kultura ministerioa bera–.

Ministerioak titular txikiagoak ere eman ditu martxoan, proiektua finantzatzeko erakutsi duen mizkin-keriagatik. Pablo Berastegui hilaren 6an jakinarazi zuenez, kolokan dago Espainiaren ekarpen ekonomikoa, 12 milioi eurokoa izan behar zena; horietatik 4 baino ezin dira ziurtatu eta bulegoan gainontzekoa ez dela pagatuko pentsatuz ari dira lanean –eta horrek Europako beste hiriburuena baino aurrekontu apalagora kondentzen du Donostiakoa–.

Trama judizialari eta ika-mika instituzionalari gehituz gero 2016aren inguruko edozein anekdota drama bihurtzeko jarrera mediati-koa, platerian dituzu datozen hilabeteetako osagaiak. Semaforoa pasa eta eskuinean daude udal hauteskundeak, eta badirudi egitasmoa izango dela Gipuzkoako hiriburuko gai izarretako bat –azken lau urteetan Kultur Hiriburuaren aginte organoetatik kanpo egon

den PSE-EEk, barbarako, Ernesto Gasco alkategaiaren bidez Juan Karlos Izagirreraren kontra kargatu zuen 2016ko patronatutik dimititu beharko lukeela adieraziz–.

Jaurlaritzak bestelako goi-bilera nahi du

Baina Kontseiluak 2016an parte hartzeari buruzko eztabaida lehenagotik dator, iazko irailaren amaieratik gutxienez. Eta orduan ez zen Espainiako Kultura ministerioa izan hizkuntza gutxituen goi-bileraren kontra egin zuena, Eusko Jaurlaritza baizik. Joxean Muñoz Kultura sailburuordeak kritikatu egin zuen hitzarmena erakundeei aurkeztu zitzaaien modua, besteak beste, bere esanetan bilera aurretik beharrezko dokumentazioa ez zitzaielako helarazi.

Forma kontuak aparte, urriaren 17an Euskadi Irratiari egindako adierazpenetan, Muñozek gaitzetsi egin zuen Kontseiluaren egitasmoak izan zezakeen edukia, bere esanetan “zabaldutako nahi zen diskurtsoak” euskarara hiltzeaz zegoela adieraziko zuelako. “Ezin dugu heriotza saltzen ibili”, gaineratu zuen.

Patxi Baztarrika Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak antzeko adierazpenak egin ditu martxoaren 16an Ser irrati katean, baina edukietan sartu gabe, antolatzaileetan jarri du letra larria. Kontseilua bai, baina beste erakunde batzuk ere antolaketan sartzearen alde egin du, hala nola Jaurlaritza bera, EAEko unibertsitate guztiak, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Unesco Etxea...

Baina zer proposatu du Kontseiluak?

Antolatzaileek, edukiek eta formek dirudite eztabaidaren detonagailu beraz. Dena den, adie-

**Martxoaren 31n
azalduko du Kontseiluak
hizkuntza gutxituen
goi-bileraren edukia;
hori ezagutu gabe sortu
da polemika**



razpenok Kontseiluaren proposamena ezagutu baino lehen egin dituzte Jaurlaritzako ordezkariak, martxoaren 31n emango baitu horien berri euskararen gizarte erakundeak biltzen dituen organoak –azken asteetako tirabirek bestelakorik probokatzen ez badute behintzat–.

Joan den asteazkeneko bileran Kontseiluko kideek, beren burua aurkezteaz gain –euskalgintzako 40 eragile biltzen dituen organismoa dela esplikatu behar izan zuten–, aurrera jarraitzeko borondatea adierazi zuten.

Hizkuntza gutxituen goi-bilerak fase ugari aurreikusten dituela ere esplikatu zieten erakundeei eta, abiapuntua euskalgintzak jarriko lukeen arren, gerora lanketa zabalagoa aurreikusten dutela, baita beste agente batzuen parte-hartzea ere, betiere fokua gizarte zibilean jarrita.

Donostia 2016ren egoitza barruko argazkia goian.

Donostiako suhiltzaileen egoitza izandakoan giro zaileko bilera egin zuten joan den astean erakunde publikoek.

Euskararen normalizazioari buruzko kontakizuna nork egingo lehian

Euskara auzi politikoa dela behintzat inork ez du zalantzan jarriko ikusitakoak ikusita. 2016aren beste korapiloak askatzen ari direla dirudienean, hizkuntzari buruzko kontakizuna nork eta nola egingo duen zehaztea bihurtu da Kultur Hiriburuari gai zailenetakoa bat. Baliteke Jaurlaritza deseroso sentitzea bere hizkuntza politikak gizarte zibilararen testa pasatzeko aukeraren aurrean, non eta nazioarteko proiektzioa daukan bilkura batean.

Ikuspuntuak eta antolatze moduak eztabaidatu daitezke. Baina, posible ote da hori soseguz egitea mahai berean esertzen diren erakundeek epaitegietan ere elkar ikusten baldin badute? ■

Inguru
ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonaurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18, Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com

Nola bihurtu zinema zahar bat kulturgune berri

Zarauzko Udalak orain ia bi urte eta erdi hartu zuen alokairuan Modelo zinemaren eraikina. Ordudanik, kultur eredua errotik aldatuz, erabilera anitzeko areto moduan funtzionatu du, herritarren parte-hartzea oinarri. Orain, Udalak eraikina erosi ostean, herriko kulturgune dinamiko eta garrantzitsuenetarikoa bilakatu da.

| LIDE HERNANDO |

HERRIKO ERDIGUNEAN dagoen ia ehun urteko eraikina 2012ko neguan itxi zuten jabeek, negozioa gainbeheran zela-eta. Nostalgikoak kenduta, zarauztar gehienek inguruko herrietako zinemetara joateko ohitura zuten ordurako, Modelo hotz, zahar, deseroso geratu zitzaielako. Horrez gain, Lizardi antzokia ere eraitsi egin zuten, etxebizitzak eraikitzeke. Udal Gobernu berria agintera iritsi eta berehala, beraz, azpiegitura kulturaleri buruzko hausnarketa egin zuen, herriak zituen hutsu-neei erantzun ahal izateko.

“Ez dugu ahaztu behar, gainera”, dio Gari Berasaluzek, Zarauzko kultura zinegotziak, “aurreko legegintzaldietan polikulturala lehenetsi zutela. 21 milioi euroko aurrekontua zuen, eta herriko kultur azpiegituren gabezia guztiak aseko omen zituen, bertan aurreikusi baitzituzten zinema, antzokia, musika eskola... Gure ustez, ordea, proiektu hori Zarautzen beharretatik oso urrun zegoen. Oskola lehenetsi zuten, mamia ahaztuta, eta horrek Udala eta herri mugimenduak nabarmen urrundu zituen”.

Herriaren eskaerari erantzunez

Parte-hartze prozesu bat jarri zuen martxan Udalak legegintzaldi honen hasieran herriko kultur azpiegituren inguruan. Bilera horietan zenbait ondorio atera ziren eta, besteak beste, Modelo zenaren eraikina berreskuratzearen beharra plazaratu zuten herriko zenbait kultur eragilek. “Historikoki garrantzia duen topagunea dela, herriaren erdigunean dagoela, eta eraikina bere horretan erortzen ezin genuela utzi adierazi zuten askok”, dio Berasaluzek. Udalaren planetan lehenetsia ez zegoen arren, gobernuak kontuan hartu zuen askoren iritzia

zena, eta jabe ohiei alokairuan hartu zioten eraikina. Arriskua beren gain hartu zuten: eraikina kudeatzen hastea, kultur eredu berri, herritar eta dinamikoa martxan jarrita.

2012ko azaroan berriz irekita, haren kudeaketa nola egin pentsatzen hasi ziren. “Bilera batean, antolamendu berria planteatu genuen, hiru taldetan banatuta. Batetik, Kultura sailak eta Udalaren beste sailek antolatuko ekitaldiak. Bestetik, herriko eragileek kudeatutako ekitaldiak, programazio iraunkorrek eta puntualak bilduko zituen multzoa: Bidelagunak. Horiek, baldintza zehatz batzuk beteta (soinu teknikariak, atezainak...) erabili ahal izango zuten eraikina, modu ia autogestionatuan. Azkenik, Modeloren bidelagun izan gabe, ekintza puntualetarako aretoa erabili nahi zuten enpresak edo kolektiboak; horiek alokairua ordaindu beharko zuten”, dio Berasaluzek.

Hiru taldeetatik, bigarrenari eman zioten garrantzi handien; eta bi urte eta bost hilabetez martxan egon ostean, helburua hein handi batean lortu dutela esan daiteke. “Udalak zine komertziala bere gain ez zuela hartuko esan zuen, adibidez”, dio Berasaluzek. “Horren aurrean, herritar talde batek Modeloren Lagunak elkarte sortu zuen, aretora film komertzialak ekartzeaz arduratuko zena. Horiek hileko bigarren eta laugarren asteburuetan eskaintzen dituzte pelikulak”.

Gainerako asteburuetan, aldiz, antzerkiarentzat edo musika kontzertuentzat gorde izan da eraikina. Asteazkenean, azkenik, hitzaldiak eta dokumentalak antolatu ohi dituzte. Aretok irekita daraman denboran lortu diren emaitzek euren kabuz hitz egiten dute: 350 bat ekitaldi eta 38.000 ikusle bildu dira guztira.

Herritar askoren iritzia kontuan hartuz hasi zen eraikina herriarentzat berreskuratzeke prozesua



ZUZARAUZ-INFO

2012an itxi zuten Modelo zinema eta desagertzeraz kondentatua zirudien, baina kultur jardueretarako berreskuratu da.

Gutziz eraberritzeko bidean

Errentan hartu eta gutxira ohartu zen Udala esku artean zuen proiektuak mami sendoa zuela eta eraikina eskuratuz gero, mugimendu gaitasun handiagoa edukiko zuela berrikuntzak egiteko. Berehala hasi zituen erosketarako negoziazioak jabeekin, 2013an. Denbora luzea igaro ostean, 2015. urte hasieran erosi dute 1,5 milioi eurotan.

“Modelo aretoa jada herriarena izanda, harekin etorkizunera begira zer egin planteatzen hasi ginen”, dio kultur zinegotziak. “Orain arte, alokairuan hartutako eraikin zahar bat genuen, eta ahalik eta zuku gehien atera diogu. Baina beste hainbat gauzatarako desgokia zela ikusi genuen. Argi genuen berritu beharra zegoela”.

Orain, berriz ere herriaren parte-hartzea oinarri hartuta, Modelo guztiz eraberritzeko proiektua hasi dute. “Lehenbiziko bileran Udalak aretoa eraberritzeko proposamena aurkeztu du: zer egin? Nola egin edukiera handiagoa izan dezan? Bigarren eta hirugarren solairuetan zer? Bigarren bileran, herriarrek ekarritako proposamenak bilduko dira, arkitektoek eta teknikariek zehaztutako baldintzekin erkatuz. Hirugarrenenean, azkenik, egin nahi denaren eta ahal denaren arteko aukerak ikusi eta erabakiko da.

Zer egin argi edukita, lehiaketa publikora aterako dute proposamena, proiektua idaz-

teko. Kalkulatzen dute 2016rako hasiko direla eraberritze-lanak, eta aretoa urtebetez-edo itxita egon ostean, Zarautzek behin betiko kultur gune batez gozatzeko aukera izango du.

Kultur Mahaiak eman dituen fruituak

Modeloren biziberritzea ez da zarauztarrek azken urteotan sortzen ikusi duten kultur egitasmo bakarra. Udal Gobernuak Kultur Mahaia sortu zuen 2014an, Zarautzen dagoen kultur mugimenduari balorea eta oihartzuna eman nahian, bateko eta besteko eragileak elkartu eta saretu nahian, ordura arte erabat atomizatua baitzegoen. “Kultur Mahaiak hiru azpibatzorde finko ditu: agenda eta komunikazioa, jaiak, eta kultur ondarea eta azpiegiturak. Horrez gain, kasuan kasuko eztabaida eta hausnarketei erantzuteko bilgune bereziak ere baditu; Modelo aretoari buruzkoa horietako bat da, esaterako”.

Zarauzko Udalaren Kultura Sailaren beste berrikuntzetako bat malekoian zabaldu zuten Sortaldea Kultura Eremua da. Udan liburutegi ireki bezala funtzionatzen du (alegia, liburuak libreki hartu eta uzteko lekua), hitzal-diak, kontzertuak eta sormen tailerrak antolatzeaz gain. Urte osoan, sortzeko eta sortutakoa erakusteko espazio autogestionatua ere bada. Guneak mugimendu handia sortzen du, batez ere udako hilabeteetan. ■

Literatura

Poesia kaiera

Anne Sexton

Itzultzailea: Harkaitz Cano
Susa, 2015



Amerikaren ahots

“AMERIKA,/ non daude zure egiaztagiriak?” galde-tzen dio erretorikoki Anne Sextonek (Massachu-
setts, 1928-1974) kontinenteari. Fikzio konfesiona-
laren musak, tripei hitzak jarri zizkien emakume
buruargiro zoroak, depresioei adjektiboak jarri diz-
kio beste behin.

Hilekoak eta drogak ekarri zituen litera-
tura lau xamar batera Anne Sextonek,
eta bere garaiko olatuaren gainean
lortu zuen errekonozimendua. Ez
zen, zentzu honetan, beste idazle
madarikatu bat izan. Sarien ezia
—eta mikatza— probatu zituen,
batez ere poesia alorreko Pulitze-
rrarekin, 1967an, *Live or Die* libu-
ruarekin.

Plath baino eratsuagoa eta
aurreikusteko errazagoa, Sextonek
amerikar poeta klasikoen segurtasuna
ekarri zion zalantzaren garaiko lirikari, eta
politika egitea lortu zuen kategoria ideologikorik
erabili barik. Gauzak erakustearekin nahikoa zuen.
Irakurleak bihurtzen du beraz Sexton aldarri:
“Emakumeak beratzen jarria du bihotza./ Erauzi
egin diote,/ eta kixkalita dagoelako/ azken ekintza
bezala/ ur-xorrotaz freskatzten du errekan”.

Harkaitz Cano bera ere idazle ezagun baten uhin-
bide bihurturik ageri zaigu antologia ondo aukeratu-
tako honetan. Idatzia du donostiarrek berari Sexto-



nen heriotza egiten zaiola laburpen bat ederra:
“Cougar auto gorriaren bolante aurrean jarri eta
motorra piztu zuen gero. Baina ez motorra bakarrik
—eta xehetasun hau ez da hutsala—, irratia ere bai.
Anne Sextonen amaiera lazgarriaren teatraltasunak

laburbiltzen du bere bizitza. Adikzioa, alaba ere
baden amaren larru babestailea, abiadura-
ren poz bizia, bere buruko ahotsak
tapatzeko irratia”. Asaldatzen duten
ahotsen korua ederto entzuten da
antologia honetan. Canori ez zaio
aditzen ia. Eta Sextonek gorrota-
tutako Jainkoaren imitazio inkon-
tzientea garbiro dakusagu: Jain-
koa bera dira bere maitasun,
amorrutak eta salaketa ozenak. Poe-
tak mundua oro erakusten digu,
gauza itsusiak eta gauza bikainak, eta
esan barik artez dena dela efimeroa,
dena efimeroa dela sentitzen du batek. Sex-

tonen euria eta inurri gorriak euskal irakurlearen
esku daude orain Munduko Poesia Kaieretan. Egia
esan bildumarekin gozatzen ari gara, hunkitzen gai-
tuzten irakurraldiak opatzen ari zaigu. Eta zehazki
Sextoni buruz asko idatzi da, eta Sextonen idatzia-
k han eta hemen argitaratu dira, baina orain behintzat
esan dezakegu: euskaraz daukagu harribitxi hau. ■

Igor Estankona



LARTALDIK

Lartzandieta Baserria

Urdaiaga Auzoa, 44 · 20170 Usurbil (Gipuzkoa)

© 666 607 447 · inigohuegun@gmail.com · www.lartzaldiak.com

Koord. GPS: 43.266031,-2.067587



Astirtitan
Petti

Bonberenea Ekintzak, 2014

Pettiren bost kantu eder

AZALEKO IRUDIAK adierazten duen bezala, lan iradokitzailea da *Astirtitan*. Melodia politak, hunkigarriak eta mingotsak, giro lasaiak, eta rock erritmoak entzun daitezke. Nahiko lan gordina da, gehiegizko apaindurarik gabe ekoitzia. Kantuak ederrak dira, “nahiko biluziak” Pettiren esanetan.

Grabazio saioetan, Pettirekin hainbat musikari handi aritu dira: Karlos Aranzegi (perkusioak), Iñigo Telletxea (baxua), Igor Telletxea (bateria), Joxan Goikoetxea (kordiona), Estitxu Pinatxo (ahotsak) eta Freddi Pelaez (Hammond b3).

Kantu guztien musika Pettik konposatu du. Pettik berak Egunero eta Argiak kantuen hitzak idatzi ditu, Harkaitz Canok Suerteren Bluesa eta Erramurik gabeko gauak kantuenak, eta Bernardo Goietxek Hil arte edan kantuenarena.

Bost kantuak Iñaki Bengoaren eskutik Shot estudioan eta Jonan Ordorikaren eskutik Katarain estudioan grabatuak izan dira. Masterizazioa Karlos Osinaga *Txapek* egin du, Bonberenea estudioan. Miren Karmele Gomezek diskoaren azala egin du, J.A. Areta Goñi *Juxek* argazkia eta Imanol Urizarrek diseinua eta maketazioa. Denen artean lan handia egin dute eta bikain osatu dute *Astirtitan* lana.

Petti (Bera, Nafarroa, 1973) musikari eta musikagile handia da, aparta. *Astirtitan* lanaren aurretik, beste bost bakarkako disko kaleratu ditu, Gaztelupeko Hotsak eta Bonberenea Ekintzak zigiluekin –*Ametz bat* (1999), *Arrazoiak* (2001), *Etxeke Uztia* (2002), *On* (2007) eta *Awañak* (2008)–, eta Anari, Txuma Murugarren, Rafa Rueda, Xabi Señor No edota Barrence Whitfield-ekin grabatutako diskoak ere kaleratu ditu.

Blues, rock eta folk iturrietatik edaten du, aire horiek bere kantuetan sumatzen ahal dira, baina bere-berea duen doinu bat sortu du, urtez urte, kantuz kantu, emanaldiz emanaldi eta diskoz disko osatu duen doinua. Doinu hori berehala ezagutzen dugu bere kantu bat entzuterakoan, musikari handia izateaz gain Pettik abesteko, gitarra jotzeko, eta kantuak sortzeko eta interpretatzeko modu berezi bat baitauka, paregabea.

Pettiren bihotza handia da, kantuen bidez bere ezinegona, kezkak eta sentipenak indar eta kemen



handiz transmititzen ditu, eta berehala hunkitzen gaitu. Bere ahots urratu eta sakona erraietatik ateratzen du, bluesaren arimaz kutsatuta.



Jadanik zazpi urte pasatu dira Pettik bakarkako aurreko lana kaleratu zuenetik, eta bere disko berri bat entzuteko irrikan ginen aspalditik. Baina denbora horretan Petti ez da geldirik egon, *Oroitzapenerako kantak III* (2013), *Beltza. Bye, bai, Cash* (Gaztelupeko Hotsak, 2011), *Imanol Urbietak, bakarrik eta libre* (Elkar, 2013) eta *Lou Reed, mila esker* (2014) bildumetan parte hartu baitu. Gainera, jendaurreko emanaldiak egiten aritu da, bakarka, taldearekin edo beste musikari batzuekin: Balerdi Balerdi taldearekin, *Gau-beranduan* emanaldian Harkaitz Canorekin eta Joxan Goikotxearekin, eta Sortuko dira besteak kantaldian ere bai, esaterako.

Astirtitan “trantsizioko disko bat” izan daitekeela onartu du musikariak berak, baina udazkenerako lan luze bat kaleratzeko asmoa dauka, “disko rockeroagoa izango da, indartsua, gordina”, bere hitzetan. Disko berri hori entzuteko gogoz gaude, zain. ■

Joxi Ubeda

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Begoña Echeverriak ARGIAN esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


		6		3				
	4	3		5	1	6		8
8	5	2	6		4			7
		4	9		7		8	
2	3	7				1	6	9
	9		2		3	7		
7			3		6	4	5	1
3		1	4	2		9	7	
				7		8		

Zaila

		6			8		4	3
4								
	2	5			9			
5	4			6			2	
		2				6		
	6			7			8	1
			3			5	9	
								4
6	8		9			1		

5x5


Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Ikusmena. 2.-Bezala. 3.-Kalentura. 4.-Jantzi dotore. 5.-Itxura, antza.

Erronboak

Erantzunek zenbaki bakoitza inguratzen dute, gezia ateratzen den laukitik hasita eta haren noranzkoa jarraituz.



1. Istorio irudikatuak.
2. Ikuspegi, bista.
3. Tristea.
4. Aztura, ohitura, usadio.
5. Irudi.
6. Umerik izan ez duen emakume.
7. Auzilari.
8. Etsenplua.

Soluzioak

1. Komitak. 2. Panorama. 3. Belduna. 4. Tradizio. 5. Marrazki. 6. Nuliparo. 7. Liskarti. 8. Adibidea.

Erronboak:

1. Bista. 2. Iduri. 3. Sukar. 4. Traje. 5. Aire.

5x5:

1. Istorioa da nik asmatua. Nire lehenbiziko liburua da. "Liburua ageri diren dokumentuak egiazkoak dira, eta Durangoko Azokara ekarti nuen, eta saldu".

Bada sekula epeltzen ez den kafe bat

Kafea eta Galletak

Noiz: martxoaren 14a.

Non: Astra, Gernika.

Musikariak: Morau eta Beñardo.

BERROGEIGARREN eta, itxura guztien arabera, azken edizioa zuen Kafea eta Galletak egitasmoak hilaren 14an. Han agertu ziren Andoni Tolosa “Morau” eta Beñardo Goietxe, elkarrekin ondu duten *Arrainentzako himnoak* diskoa zuzenean aurkeztera, Townes Van Zandt-en *Live at the Old Quarter* komentatzearekin batera.

Inoiz ez da masentzat pentsatutako kontzertu mota izan Gernikakoa, baina 2008an martxan jarri zenetik erreferentzialtasuna lortu du, jotzera gonbidatu dituzten musikariengatik bezainbeste, egitasmoaren originaltasunarengatik. Hilero elkartu, zuzenean aritu behar duen musikariak hautatutako disko bat entzun kafea eta galletak dastatu bitartean –hortik izena– eta ondoren formatu txikiko boloa.

Denbora luzez antolatu gabe egon ondoren, aho zapore ona utzi zuen Gernikako Lekuek festibalaren barruan egindako hondarreko saioak: aspalditik zebiltzan Morau ekarri nahian Leire Lopez antolatzaileak



hasieran aipatu zuenez, eta hernaniarraren pop dibertigarriak aurreikuspenak ondo bete zituen. Eguneroko kontuen ironiaz beterik dago Goietxe beratarrekin batera osatu duen diskoa; eta musikari askok inbidiaz entzungo dituzten melodiaz.

Bereziki hunkigarria egin zitzaidan *Hondarribia 2012* kanta, baita The Smiths bertsionatuz kontzertua itxi zuen *Bada sekula itzaltzen ez den argi bat* ere. Ez niri bakarrik: ikusle batzuek agertoki gainean dantzan esan zioten agur Kafea eta Galletaki. ■

Gorka Bereziartua Mitxelena

Zahartzaroan ere punk



Buzzcocks eta The Lookers

Noiz: martxoaren 28a, 22:00.

Non: Intxaurren Kultur Etxea, Donostia.

Sarrera: 18 euro.

BAI, ados, askoz hobe izango zen kontzertu hau bere garaian ikusi izana, tokatzen zenean, hasi zirenean adibidez: 1976 inguruan astindu zituen gitarrak lehenbiziko aldiz Buzzcocks taldeak. Eta punk britainarraren eztandaren urteak ziren, baina beti dago zalantza mahai gainean jarriko dizunik: “Hauek punk taldea? Niri oso pop iruditzen zaizkit”.

Bata ala bestea izan, 70eko hamarkadaren amaieran zenbait kolpe on jo zituzten –nahi gabe ere entzuna izango duzu 1978ko *Ever Fallen in Love (With Someone You Shouldn't've)*–; eta halere, Boltongo talde honen izena bigarren planoan geratu da musikaren historiarentzat, Sex Pistols edo The Clash erraldoien atzean.

Baina musika ez denez famatuena nor bihurtu den epaitzeko lehiaketa –ez luke izan behar behintzat–, 2014an disko berriarekin itzuli ziren beterano hauen kontzertuak aukera ona dirudi, rockero zaharrak ez direla inoiz hiltzen dioen esaldi horri egia ote den frogatzeko. Zita bakarra dute Euskal Herrian. ■

Gorka Bereziartua Mitxelena

42 milioi pertsona erradioaktibitatearen pean

MARTXOAREN 11N lau urte igaro ziren Fukushima zentrala lehertu zenetik eta, dagoeneko, hango berrien jarioa ez da aurreko urteetako bezain emankorra. Oraingoan, zientziari eskainitako atal honetan, gogora ekarri nahi ditugu Txernobyl eta Fukushima eragin eremuan bizi diren 42 milioi pertsonak eta beste izaki bizidunak. Neurri handiagotan edo txikiagoan erradioaktibitatearen menpe dagoen lurraldea 20.000 kilometro koadrotik gorakoa da bi gune horietan.



CARL MONTGOMERY-CC BY

Txernobylgo erreaktore nuklearra.

Bertako pertsona, animalia eta landareen heriotza tasa ofiziala ez da oso handia oraindik; izan ere, baliteke gero eta datu ofizial gutxiago ematea urteek aurrera egin ahala. Aldiz, datu estraofizialek diote minbizi kopurua hazten ari dela, eta aldaketa genetikoak gertatzen ari direla zentralen inguruan bizi diren animalien eta landareen. Azken batean, esperimentaziorako bizidun bihurtu dira, eta Txernobyl eta Fukushima inguruak, laborategi erraldoi bana. ■

Ganimede sateliteak Lurrak baino ur gehiago eduki dezake

GANIMEDE, Jupiterren satelitea, eguzki sistemako handiena da. XVII. mendean Galileok aurkituz geroztik, urteaz gero eta datu gehiago ditugu beraren osaketari buruz. *Galileo* zundak eta berriki *Hubble* teleskopioak lortutako datu eta irudietan oinarrituz, ia ziurtzat jotzen da Ganimedek ur gazia duela lur azpian, gainazala baino 150 kilometro beherago.



NOAA

Zientzialariek uste dute barne-ozeari hori gure planetakoak baino hamar aldiz sakonagoa dela: 100 kilometro ingurukoa, hain zuzen. Bertako ur masa handiagoa izan daiteke Lurraren gainazalean dagoen guztia baino.

Itsaso horretan bizi garatzeko baldintzak daudela sinetsita daude ikerlariak. ■

Itsaso horretan bizi garatzeko baldintzak daudela sinetsita daude ikerlariak. ■

Txertoen inguruko eztabaida biziagotu da AEBetan

Umeak izan dituen orok ezagutzen du haiek txertatzeko politika ofizialen aurkako norbait. Iaz elgorri agerraldi indartsua gertatu zen AEBetako Disneyland-en, eta herrialde horretan txertoen aurkako familia asko dagoenez —elgorria areagotzea horiei leporatzen zaie, hain zuzen—, eztabaida interesgarria piztu da.

ttiki.com/337950
(Euskaraz)

Bihotzaren egoera aztertzeke, esfortzu probak ala eskanerrak?

Kirola normaltasunez egiten duen edozeini bihotza aztertzeke aholkatzen zaio; hainbat lasterketatan, derrigorrezkoa izaten da aurretik azterketa hori egitea. San Diegoko Unibertsitateak (AEB) aztertu egin du horretarako zer den hobe, esfortzu proba ala eskanerra, 10.000 pertsonaren segimendua eginez.

ttiki.com/337951
(Frantsesez)

Eguzki energiaren dabilen abioia munduari bira egiten ari da

Martxoaren 9an Abu Dhabi-tik abiatu zen eguzki energia beste erregairik erabiltzen ez duen *Solar Impulse 2* abioia, munduari bira egiteko asmoz. 25 egun beharko ditu helburua betetzeko, baina ez bata bestearen ondotik, datozen bost hilabeteetan zehar baizik.

ttiki.com/337953
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Nor

UDABERRIAREN EKINA hemen da. Lantegi ederra hartzen du, urtea joan eta urtea etorri, gure izerdiak mugiarazten. Gu, bai gu: landareak eta geroni. Idatzi bati buruzko iritzia jakin nahi nuen eta hor bidali diot adiskide bati. Bueltan, hor datozkit bere iritzi egoiak eta onak, baina ohar batez lagundurik: landareak “nor” gisara tratatzen ditudala eta, ezetz, landareak “zer” direla.

Landareak nor ez direla dioenak berak jakingo du zertan ari den, baina Urkijo baino puztuago dabil. Ikuspegi hori ez da ez troglodita. Aurreragokoa! Landareak gure zerbitzura, gure gurariak asetzeko, ustezko jainkoren batek eginak direla buruan duenak, seminario kiratsa duen heziketaren ondorio zikiratzaileak ez dituela gaingitu besterik ez du azaltzen.

Aldizkari honetako lagunekin elkarlanean, laster landareak ikusi



TRIVIAKING-CC BY SA

Sagarrondoak maiatzean erabakiko du datorren urtean sagarra eman edo ez; nola arraio erabakia hartu, jaso eta, gainera, hurrengo urtean bete?

ko dituen liburu bat erditzeko asmotan gabilta. *Biñi Baratzea; garaian garaikoa garaiz; eman eta hartu* izena izango du eta bertako lehenengo esaldiak honela dio: “Ezer-tan hasi aurretik, ohar bat: landareak badira nor, badirenez, eta, beraz, hemen halaxe tratatuko ditugu”.

Gure garuna baino zaharragoa da landareen jakinduria. Nola kudeatzen duten ez dakigu eta

horrek erretzen gaitu eta hankapean hartzera bultzatzen. Azpian, maizegi darabilgun uraren bitsa zapuztuko da, noizbait.

Sagarrondoak maiatzean erabakiko du datorren urtean sagarra eman edo ez; nola arraio erabakia hartu, jaso eta, gainera, hurrengo urtean bete? Tokitan gaude gu! Erabakiak hartzen, jasotzen eta urtebetera betetzen...

Iaz ereindako sagar haziak ez ziren ernatu. Epelean igaroko zuten negua eta ezin udaberri-rako kokka sentitu. Zer

senti dezake hazi ziztrin batek? Nola? Ba, iaz lo geratu eta aurtengo negua lurpean pasa ondoren ederki ernatzen ari dira. Tokitan...

Tokitan ez, ber-bertan dugu sapelarra (*Stellaria media*), baratze-ko lur aberatsen adierazle garbia. Oraintxe mastra mardula erakusten. Hura ihartzen hasten denean ekin baratzea udaberri-tzeari. Esaerak hala dio. Jakin eta adierazi. ■

16-15-8,5

Ongarriak ezagutzeko, nazioarteko nomenklaturak hiru zenbakirekin azaltzera behartzen du. Lehenengoak nitrogeno proportzioa adierazten du, bigarrenak fosforoarena eta potasioarena hirugarrenak. Simaurretan oilo zirinetik datorrena da aberatsena: %16 N, %15 P eta %8,5 K. Hori izugarria da. Hurrengo aberatsena arkorotza da: 8,3-2,3-6,7. Eta hori gutxi balitz kaltzio proportzioa ikaragarria du oilo-kakak, %24.

Simaurtze sasoia aurreratua da, baina beti berandu denez, ahal duzunean baratzea, soloa, fruitu arboladia edo lorategia simaurtu. Hurrengo urterako, eguberri inguruko txoroaldiarekin batera lan horri ekin behar diozula gogoratu. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua **landareak@argia.eus** helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.




Zumargain
nekazaletxea

☎ 671 334 101 • Elizmendi auzoa • 20159 Asteasu

21 gramokoa al da azken hatsaren pisua?

CADELL & DAVIES



Arima gorputzaren gainean, bizitzatik gogo gaiztoz alde eginez, William Blake eta Louis Schiavonetti, 1808. Duncan MacDougallen (1866-1920) ustez, irudiko emakumeak, arimak alegia, 21 gramo pisatzen du.

HAVERHILL (MASSACHUSETTS, AEB), 1901. Duncan MacDougall medikuak arimaren pisua kalkulatzeko esperientzia egin zuen. Hiltzen garenean arimak gorputza uzten badu, arima pisatzea nahiko sinplea zen, doktorearen aburuz. Gorputza hil baino lehen eta hil eta berehala pisatu besterik ez zuen egin behar. Horretarako adinekoen egoitza batera jo zuen eta hiltzorian zeuden sei pertsona lortu zituen esperimenterako. Emaiza: gorpuak gorputz bizi-dunak baino hiru ontza laurden gutxiago pisatzen zuen eta, beraz, hori da arimaren pisua: 21,26 gramo.

Ondoren hamabost txakur hil zituen eta haiengan ez zuen pisu aldaketarik sumatu. Txakurrek arimarik ez dutela ondorioztatu zuen, jakina.

MacDougallek emaitzaren berri sei urte geroago eman zuen, eta albisteak *New York Times*en agertu zenean, bolo-bolo zabaldu zen. 2003an Alejandro Gonzalez Iñárrituaren *21 gramo* filmak mitoa berpiztu zuen.

Teoria gezurtatzeko hainbat ahalegin egin dira. Esperimenteraren berri jakin eta berehala, Augustus P. Clarke fisikariak azaldu zuen hiltzean birikek odola hozteari uzten diotela eta gorputzaren tenperaturak bat-batean gora egiten duela. Ondorioz, izerditzea areagotuko litzateke eta horrek azalduko luke 21 gramoko galera, eta txakurrek pisurik galdu ez izana. Txakurrek arima izan ala ez, izerdi gurui-nik behintzat ez dute eta, beraz, Clar-

keren esanetan, 21 gramo horiek izerdiari zegozkion, ez arimari.

Oraintsuago, Francis Crickek —Medikuntzako Nobel Saria 1962an— esan zuen 21 gramo horiek garunaren prozesu fisikoen ondorioz galtzen direla. Haren esanetan, neuronen jarduerak eremu elektrikoa sortzen du eta gorputzak gehiago pisatzea eragiten du horrek. Jarduera eteteko unean, eremua desagertu eta pisua galtzen da, beraz. Baina Crickek ez zuen azaldu MacDougallen txakurrek zergatik ez zuten pisurik galdu, txakurrek ere neurona-jarduera bai baitute.

Baina zientzialari gehienek, besterik gabe, ez zuten arima pisatzeko esperimendu hura benaz hartu. Eszeptikoentzat, arima bera existitzen denik frogatu ezin denean, zer zentzu dauka haren pisua kalkulatzek? Eta MacDougallek erabilitako metodoa ere ez zen oso zientifikoa. Sei kasuk osatutako laginak ezer gutxi frogatzen du eta, gainera, esperimenteraren ondorioa emaitza bakarrean oinarritu zuen medikuak. Lehen hildakoak 21 gramo galdu zituen, bai, baina gainerako bostek ez —batzuek gehiago galdu zuten, beste batzuek batere ez...— eta medikuak, besterik gabe, emaitza horiek baztertu zituen.

Beraz, arimaren pisua ez zuen ondo kalkulatu, pisua zuenik ere ez zuen frogatu eta, arima tartean egon ala ez, hiltzen garen unean zehazki 21 gramo galtzen ditugula ere ez da egia. ■

Arrastoak

Aliatuek milioitik gora alemaniar bortxatu zituzten

MIRIAM GEBHARDT historialari alemaniarrek *Als die Soldaten kamen* (Soldaduak etorri zirenean) lana argitaratu du. Bertan dio Bigarren Mundu Gerra amaitutakoan soldadu aliatuek milioi bat inguru emakume eta neskato alemaniar bortxatu zituztela. Gutxienez 860.000 izan zirela dio Gebhardtek, baina iturri batzuek kopurua bi milioiraino igotzen dutela.

Izugarrikeria horiek sobietarrek soilik egin zituztela zabaldu izan da, baita nolabait justifikatzen saiatu ere: Stalinek ahalik eta min gehien egiteko agindua eman omen zuen, mendekua xede. Baina Gebhardtek dio bortxaketak sistematikoak izan zirela eta britainiar eta estatubatuarrek neurri berean izan zirela erantzuleak.

Biktimen %10 bortxatu ondoren hil zituzten eta zehaztu gabeko beste portzentaje bat haurdun geratu zen. Hurrengo hilabeteetan sekula laguntzarik eta babes ofizialik jasoko ez zuten milaka haur jaio ziren. ■



Soldadu aliatua, zehazki sobietarra, Reichstag suntsituaren parean.

Burujabe izateko, herria egurrez berotu

Aramaioko 1.543 biztanleetatik, 900 baino gehiago herrigunean bizi dira, Ibarra, eta gainontzekoak baserri-auzoetan sakabanatuta. Udalaren eta herritar askoren helburuak betetzen badira, datorren negurako Aramaio izango da herrigune guztia –eraikin publikoak eta etxebizitzak– egurrezko biomasarekin berotuko duen Euskal Herriko lehen udalerria.

| IKER BARANDIARAN |

Argazkiak: Arteman Komunikazioa / Aramaioko Udala

ASPALDI GORPUZTU ZUTEN Aramaion landa garapenaren aldeko ekimen iraunkorra, Udalaren eta hainbat herritarren ekimenez. Helburu nagusia bertako baliabideen azterketa egin eta garapen jasagarria bermatzea zen. Jasangarritasuna hiru eremutan aurreikusi zuten: soziopolitikoan, ingurumenekoan eta ekonomikoan. Eta horretarako funtsezkoa ikusten zuten burujabetasunaren alde egitea hiru esparru nagusitan: elikaduran, energian eta turismo-aisian.

Testuinguru horretan eta udalerrian nagusi zen gas propanoaren

prezioaren gehiegikeriez nazkatuta, harremanetan jarri ziren hainbat enpresa eta erakunderekin, energiaren gaineko ikerketak egiteko. Eta behin energia hidraulikoa, eolikoa, eguzkiarena eta biomasarena aztertuta, konturatu ziren azken hori zela Aramaiorako egokiena eta bideragarriena. Are gehiago, berorrena zela landa garapeneko ekimenak zirriborratutako oinarri gehien hurbiltzen zena.

Lehengai berriztagarri eta garbia

Biomasa, prozesu biologiko baten bidez lortutako materia organikoa,

lehengai berriztagarria da. Aramaion zurezko biomasa aukeratu dute, egurrarena. Abantaila ugari antzeman dizkiote: herrian berotatsuna sortzeko energi iturri agortezina dela; garbia; merkea, lehen sektorea bultzatzen duena; eta, gainera, lanpostuak sortzeko aukera ematen duena.

Bukatzeaz dagoen legealdi honen erdian udalerrian biomasa sustatzeko taldea eratu zuten, eta ordutik astero batzen da udaletxean. Talde irekia da, oso mota desberdinetako herritarrek osatutakoa: badira basojabeak, kaletarrak, ingurumenaz eta



Ezkerrean Ibarra, Aramaioko herrigune nagusia. Udalaren eta herritar talde baten asmoa gauzatuz gero, inguruko basoetatik hartutako egurra izango da beroa sortzeko energi iturri bakarra bertan.



Herria egurrezko biomasaz berotzeko proiektua azaltzen duen erakusketa paratu dute Sastiña aretoan. Argazkian, Aitor Larrañaga, Udaleko Ingurumen arloko dinamizatzailea (ezkerrean) eta Ramon Ajuria alkatea.

basoetako espezieez interesa dutenak, udal ordezkariak... Euskal Herritik kanpo gauzatu diren esperimentuak ezagutu dituzte, Aramaion jarri beharreko azpiegituren gaineko azterketak egin dituzte, basoen egoera eta ustiapenari buruz hausnartu dute, zalantzak mahai gainean jarri eta partekatu dituzte... Eta ondorioztatu dute udalerriko basoetan –publiko zein pribatu– biomasaz bidez energia nahikoa sortzeko baliabideak dituztela, baso-jabeek proiektuan interesa dutela, eta Aramaio herrigunean, Ibarra, bere hedadurarengatik, obra zibila neurrikoa –txikia– egiteko baldintzak betetzen direla. Horregatik erabaki zuten biomasaz bidezko energiako azpiegitura landu eta lehen fasean herrigunean ezartzea. Bigarren fasean ezarriko lukete baserri-auzoetan.

Energiaren kudeaketa publikoa

Aramaio alkate Ramon Ajuria proiektuaren bultzatzaile sutsua da. Uste du etxeetan berotasuna izatea eskubidea dela, eta ez luxua. “Energiaren kudeaketa publikoa defendatzen dugu. Energia herritarren ondare bilakatu beharko litzateke, negozioarako erabili ordez oinarrizko eskubide bilakatzeko. Gaur egun kanpoko merkatuen menpe gaude, prezioak nahi beste igotzen dituzte eta aukera edukiz gero, gure kasua

den bezala, burujabeak izan behar dugu. Gure baliabideak erabiliz, prezioak guk jarri behar ditugu eta proiektuaren etekinak herriarentzat, herritarrentzat izan behar dira”.

Ingurumenaren alde egin nahi dutenek ere argudio ugari dituzte aukera honen alde egiteko: biomasaz energia berriztagarria dela, agortezina, egurra erretzeak sortutako CO₂-a zuhaitz eta landare gehiago landatuz berdintzen dela, errautesek ongari gisa balio handia dutela, basoak zainduta izateko modua dela eta era berean suteak ekiditeko, bertako espezieak indartzeko modua ere badela...

Etekinak, herritar guztientzat

Sustatzaileen esanetan badira onura gehiago ere, herritar ororen egunerokoari eragingo lioketenak. Horien artean, garrantzitsuenak fakturaren prezioa da. Udalak zenbaki zehatzik aurreratu nahi ez badu ere –prezio murrizketa proiektura atxikiko diren arabera– izango delako, bes-

Udalak zenbaki zehatzik aurreratu nahi ez badu ere, energia fakturak nabarmen murriztuko lirateke

teak beste–, energia fakturak nabarmen murriztuko lirateke eta urte gutxian, gainera, azpiegitura erabat amortizatuko litzateke. Udalak galdara eraiki beharko luke herrigunean, baina etxebizitza partikularretan ez litzateke obrarik egin behar.

Argudio sozialekin jarraituta, Udalak ezarriko luke egurraren prezioa eta interesa duten udalerriko baso-jabe guztiei erosiko lieke. Energiaren kostua ere Udalak berak zehaztuko luke. Argindarraren banaketa erakunde publikoak gauzatu ahal izango luke herrian lehenetik eratuta duten Aramaio Argindar Banatzailea enpresa publikoaren bitartez. Bultzatzaileek aurreikusten dute lanpostu batzuk sortu ahal izango liratekeela. Ez hori bakarrik, Aramaio enpresa publikoak kudeaketaz arduratuko direnez, etekin ekonomikoak udalerrian geldituko dira.

Erakunde eta udalerri, adi proiektuari

Prozesu honetan guztian zehar Udalak eta ekimenaren ordezkariak Espainiako hainbat erakunderekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta beste hainbatekin bilerak egin dituzte, eta guztiek oso begi onez ikusi dute proiektu aitzindari hau. Euskal Herrian badira eraikin publikoak biomasaren energiaz berotzen dituzten udalak, baina Aramaio lehena izango litzateke herrigune oso batean halako sistema ezartzen. Baita Espainiako Estatuan ere.

Ingelesezt *District Heating* esaten zaion sistemak hiru fase ditu. Lehenean, mendietatik egurra lortu eta erregai bihurtuko dute. Horretarako, baso-jabeekin osatutako taldeak lehengaia lortu, txikitu eta pilatuko du. Bigarren fasean, galdaran erre-kuntza prozesua gauzatuko dute. Galdara jartzeko inbertsioa egin behar da, eta horretarako harremanetan daude Energiaren Euskal Erakundearekin (EVE), besteak beste. Hirugarren fasea ur beroa etxetik etxera banatzea da. Horren kudeaketa Aramaio Argindar Banatzailea enpresa publikoak egingo luke. Hiru faseetako bakoitzean lanpostuak sortzeko aukera egongo litzateke.

Proiektuaren bultzatzaileek eta Aramaioako Udalak argi dute egingarria dela, eta onura ugari dituela; horregatik gogor ari dira lanean herritarrei apustu honen berri ematen. Baina, ezinbestez, aurrera egin ahal izateko haien atxikimendua behar dute, sinadura eta guzti.

Horretarako, Arteman Komunikazioa enpresak lagunduta, hainbat inizatibak lantzen dihardute. Proiektuaren eta biomasaren nondik norakoak azaltzen dituzten esku-orriak etxetik etxera banatu dituzte, herritar guzti-guztiak zuzenean batzarrera deitu dituzte azalpenak eman eta eztabaida sustatzeko, beste herrialde batzuetako adituak hitzaldiak ematera gonbidatu dituzte eta egunotan erakusketa jarri dute Sastiña aretoan. Bertan panel argigarriak daude, baita propio landutako ikus-entzunezko bat ere.

Herritarren atxikimendua jasotzen

“Bada beti aldaketei beldur pixka bat dionik”, azaldu du Ramon Ajuria alkateak, “baina apustu honen onurak mahai gainean daude, eta modu ezin hobea da guk daukagunari, gure baliabideei, ustiapen egokiaren bidez, merezi duten balioa emateko, aramaioar guztion mesederako”.

Proiektua bideragarria izateko beharko lituzketen atxikimenduen erdia baino gehiago eskuratu dituzte jada, eta lanean ari dira gainontzeak lehenbailehen hel daitezten. Bitartean, Euskal Herriko beste udalerri eta erakunde asko Aramaion emango den pausoari arretaz begira daude. Eta, ziur, Aramaion martxan jarri ostean, beste askok jarraituko diotela, hainbestetan aipatzen dugun burujabetasuna praktikan jartzeko adibide garde-na baita honakoa. ■

Zuri esker

“Gizarte Zerbitzuei esker, pertsona bat kontratatatu dugu etxean aita zaintzen laguntzeko”

Javier, 57 urte

Gizarte Zerbitzuak erabil itzazu
Zure eskubidea da

#ZureEskubidea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

www.gipuzkoa.eus

Konpainaren kostua: 17.500 €

Interneten euskaraz aritzeko boluntarioak behar dituzte Mintzaneten

DUELA HOGEI URTE Donostiako Bagera euskara elkarteak Mintzaleguna jarri zuen abian. Euskara ikasten ari zena euskaraz zekien batekin elkartuko zen eta bigarrenak lehenengoari mihia euskaraz dantzatzen lagunduko zion. Arrakasta izango zuen zalantza handiak zituzten batzuek, besteak beste, ez baitzuten elkar ezagutzen. Orduz geroztik, erruz zabaldu da ekimena Euskal Herrian.

Mintzanet.net webguneak antzeko funtzioa betetzen du. Alde handiena da, munduko edozein txokotako bi biztanle jartzen dituela harremanetan, teknologia berriei esker. Bidelariak eta bidelagunak dira istorio horietako protagonistak. Bidelariak euskara hobetzen ari direnak dira, eta egitasmoan parte hartu ahal izateko euskara maila gutxienekoa eskatzen zaie, hau da B1 maila izatea. Bidelagunei berriz, ez diete



Argazkian Rocio Korta (73 urte) eta Mila Altuna (85 urte) azpeitiarrak. Mintzaneten bidez bi astean behin Sofia Cisneros eta Gorka Fernández bidelariekin hitz egiten dute.

inolako titulurik eskatzen euskara maila frogatzeko. Haiek borondatea eta pazientzia behar dute izan.

Bada, Mintzanetek bidelagunak behar ditu munduko edozein bazterretan euskara ikasi nahian dabiltzanei, pantailatik pantailara bada ere, hitz egiteko aukera eman ahal izateko.

Udaltop topaketak udalen lege mugez arituko dira

EZ DA GAI BAKARRA IZANGO, baina azken aldiaren bero-bero dabilen aferari helduko diote. Udaletako Euskara Zerbitzuen topaketak apirilaren 29an eta 30ean izango dira Lasarte-Orian, urtero bezala. Hitzaldi batzuen izenburuak ikusita asma daiteke nondik norakoak izango diren hausnarketak:

- *EAEko Udal Legea. Zertan hobe dezake udaletako bizkuntza politika?* (Zelai Nikolas, legegaria).

- *Hobetu daiteke EAEko Udal Legea Udalek lana euskaraz egin dezaten?* (Iñigo Urrutia, zuzenbide irakaslea).

- *Euskararen erabilera zerbitzu publikoan: Parisetik Uztaritxera.* (Eneritz Zabaleta, zuzenbide irakaslea).

- *Aldatu daiteke Euskararen Legea? Aldatu behar da?* (Iñigo Lamarca, legegaria).

Antolatzaileak Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lasarte-Oriako Udala dira.

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Diru publikoa, aurkitu eta itzuli

AZKENALDIAN EUSKAL HERRIAN ere ustelkeriari loturiko informazioak zabaldu dira. Ezin konparatu, ekonomikoki behintzat, Espainiako Estatuan azaleratu den egoerarekin. Baina Euskal Herria ez da irla bat ustelkeriaren arloan, hortxe daude epaitegietan pilatzen ari diren auziak. Horietan guztietan diru publikoa da protagonista: lapurtu egin dute, eskuratu, harrapatu, bidegabe erabili... Ehunka milioi euro izan daitezke "lurrundutakoak", kudeatzaile politikoak eta euren alderdiak ustelkerian erori direlako antza. Ia alderdi guztiak daude zipriztinduta: De Miguel auzian esaterako, baita Hiriko, Epsilon eta Kutxabanken ere, EAJ eta PSEren gertukoak daude tartean. PP ere zikindu da Bilboko egoitzarekin eta Gasteizko San Antonio eta Iradier Arena eraikinekin. Gipuzkoan Bidegi afera dauka, EAJri bete-betean eragin diona, Lasarte-Orian berriz Urchuegia PSEko alkatearen auzia, eta Nafarroan Osasunako iruzurra, eta zer esanik ez, Nafarroako Kutxaren xahuketa.

80 lagun baino gehiago ari dira ikertzen auzi horietan, eta egoera larriagotu egin daiteke iritzi

publikoaren aurrean, laster lehia elektoralean sartuko baikara. Arriskua egon daiteke ustezko iruzur horiek guztiak alderdikieriaz erabiltzeko. Guztion onerako, eta batez ere, administrazio gardena lortzeko, beharrezkoa da sakoneraino ikertzea zer gertatu den eta erantzukizunak garbitzea prebarikazioa egon den kasuetan, baita eroskeria, influentzia-trafikoa, diru-zuriketa, administrazio publikoan eta kontratazioetan iruzurra, merkataritza-dokumentuetan faltsukeria, eta konkurtso eta enkante publikoetan prezio-aldaketa egon denean ere.

Jakin behar da erabilitako dirua ikertuak izaten ari diren horiek eurentzat erabili duten ala beste batzuk dauden tartean, fisikoak edo juridikoak. Alderdi politikoek etekinik atera al dute? Baina batez ere, aurkitu behar dira ehunka milioi euro horiek eta diru-kutxa publikoetara itzuli. Diru-publikoarekin jolasik ez. Eta norbera bere buruaren kargu egin dadila!

Juan Mari Arregi

Hizkuntzaren presioa aldez aldatzera goaz

Herritarron eta erakunde guztion ardura da bermatzea herritar bakoitzak euskara hautatzeko duen eskubidea. Korrika bezalaxe, euskararen erronka kolektiboa baita: norbanakoak 10 egun eta 11 gauez 2.300 kilometroko ibilbidea egiteak ez du Korrika egiten; milaka herritarrek elkarlanean ibilbidea osatzeak, horrek egiten du Korrika. Euskararen erronka kolektiboa da, eta euskaldunok posizioak galtzen ari gara kolektiboki, Iruñeko Udalak Korrika erdigunetik egotzi duenean bezala, prozesioari bide emanaz. Ardura norbanakoaren gain jartzeari utzi eta kolektiboki hizkuntza inperialismoaren kontra egiteko garaia da.

| ESTITXU EIZAGIRRE / AXIER LOPEZ / LANDER ARBELAITZ |

Argazkiak: Dani Blanco



1996AN UNESCOren oniritziarekin onartutako Hizkuntz eskubideen adierazpen unibertsalak dio edozein herrik duela eskubidea adierazteko eta garatzeko bere kultura, hizkuntza eta bere antolaketa arauak. Honenbestez, euskara giza eskubide kontua da, eta giza eskubideak kolektiboki irabazten dira, ez norbanakoka. Euskararen aldeko mezu gehienak oinarritu ditugu euskaldun norbanakoengan: “Hizkuntza bat galtzen da euskaraz dakizun horrek ez baduzu egiten”, “zuk beti egin lehen hitza euskaraz”, “zu ahaldundu”... Indibidualismoak elikatutako “zu”, “zu” eta “zu” hori ari zaigu etengabe, esan gabe esaten “ez baduzu egiten nahi ez duzulako da”, “librea zara nahi duzuna egiteko”, “denok dugu ahalmena denerako”...

Norbanakoaren ardurari osoki eutsi arren, eta nahiz eta jakin euskaldunok garela gakoa, euskararen ardura eta erronka kolektiboak dira. Norbanakoaren aukera erabat baldintzatzen du gizarte osoko klimak. Hizkuntza bat ez baitu sortzen batek norberarentzat, kolektibo baterako eta kolektiboan sortzen eta garatzen da beti.

Marketin adituek “zuk egin euskaraz” esaten digute “hartu bizikleta” esaten den alaitasunez. Gomen-dio horiek egitea beharrezkoa da, baina ez da aski. Errepidea, bide-seinaleak, gidarien kultura txirringari egokituta daude? Txirringa edo euskara hartzea gure herrian esperientzia atsegina da edo zartako bat hartzeko posizioan jartzea?

Guk ez genuen euskararen hizkuntzidua hautatu

Ez dezagun herritarren artean giro txarrik jarri, ez gogorazi 40 urte debekatua izan dela hegoaldean euskara. Gutxiago sufrutuko dugu, ezabatu burutik euskara debekatua, pertsegitua eta zigortua izan zeneko iruditegia hori guztia: ez dezagun euskara Eusko Jaurlaritzaren biktimen zerrendan jarri, ez dadila eskoletan euskararen historia gordina irakatsi, ez dadila curriculumetan sartu *Autopsiarako frogak* (Koldo Izagirre), *Euskararen kate hautsiak* (Dabid Anaute) edo *Gartxot* (Asisko Urmeneta eta Marko Armspach).

Ezin bagara libreak izan, behintzat elikatu dezagun irudipena. Baietz, emakume edo gizon izatea egun berdin berdin dela, eta euskaldun izatea ere bai, denok ditugula eskubide eta aukera berberak: zer mende egiten du ezberdintasunak seinalatzeak? Zer konpontzen dugu esanik euskara lurraldearen gehien-goan ez dela hizkuntza ofiziala eta beraz euskaraz ikastea, informatzea eta abar erlijioa bezala norberarengan geratzen dela, edo zehatzago norberaren bizkar finantzatzea? Hobe jabetzen ez bagara egun ere euskara hutsean jarduten duenak auzitegitan eta are kartzelan amaitzeko arriskua duela.

Izan positibo, zoaz *coachingera*, ahalegindu zure euskara erakargarri egiten zantpatzen zaituzten elebarrarentzat, ez haserretu eta batez ere, ez egin aurre. Kontziente ez bazara eramangarriago egingo zaizu menpeko bizimodua, elebarraren onarpena lortuko duzu, eta ez ahaztu zuk nahi bezala bizi zarela ahoz barruko zure errepublika independentean, beraz, erantzukizuna zurea da, egoerak egoera zuk egin beti euskaraz!

Euskara askatzailea da

Euskaraz egitea jarrera inperialistengandik askatzea da. Euskaraz egitea da bi estatuetatik ituan independente egiten gaituena.

Euskaraz egitea jarrera antikapitalista praktikatzeko da: helburua txanponak pilatzea denean ziur badugula euskara baino aukera errentagarriagorik. Euskara hautatzen dugun aldiro ziur dirua eta kompetentzia ez diren beste helbururik lehenesten dugula.

Euskaraz egitea globalizazioari iskin egitea da, munduan lekuan lekuko milaka hizkuntza horien alde egitea. Coca-Cola, Nestlé eta McDonald's ez dira euskaraz mintzo; agian gure indarrak euskara euren hizkuntz politiketan sartzen jarri beharrean, “utikan!” bidali eta gure indarrak bertoko eredu jasangarriak sortzera bidera ditzakegu. Zeren eta bai, euskaraz egitea elikadura subiranotasunaren alde egitea da.

Euskaraz egitea jarrera ekologista geure egitea da. Hizkuntzak ez dira,



animaliak bezala, hala hautatu dute-lako desagertzen, euren ekosistema (soziolinguistikoa) hausten delako baizik. Lurrik gabe ez dago hizkuntzarik. Porlanaren abiadura handiko hedapenak badu zerikusia hizkuntzaren arnasarekin.

Euskara da jatorriak jatorri euskaldun egiten gaituena, paper

Auzolan erraldoia Korrika mundura zabaltzeko

Munduan hizkuntza baten alde egiten den ekimenik handiena abian da Euskal Herrian: Korrika artikulua idatzi zuen Lander Arbelaitz ARGIAko kazetariak. Ekimenaren garrantzia mahai gainean jartzeaz gain, euskararen aurka Espainiako eta Frantziako estatuek aurrera eramandako hizkuntza politikei errepasoa egin, eta hizkuntza berreskurapenean euskalgintzak egindako lana azpimarrazten du artikulua.

Irakurleen artean, auzolanean, artikulua ahalik eta hizkuntza gehienetara itzultzeko gonbidapena egin genuen ondoren ARGIAtik. Erantzuna paregabea izan da eta 31 hizkuntzatan eskuragarri dago artikulua aldizkaria itxi dugun unean, eta sare sozialetan asko zabaltzeaz gain, hainbat hedabidetan argitaratu dute.

Ondorengo hizkuntzetara itzulia dago artikulua: afrikaans, alemaniera, amazigera, arabiera, aragoiera, asturiera, gaztelania, katalana, txinera tradizionala eta sinplifikatua, korsikera, kaxubiera, ingelesa, finlandiera, frantsesa, friuliera, galiziera, hindiera, islandiera, mazedoniera, hassania, malgaxea, erromantxera, nederlandera, persiera, poloniera, tamashaq, errumaniera, errusiera, sardiniera, suediera.

Itzultze bidean dira ondorengoak: armeniera, balutxera, bosniera, bretoia, daniera, gaeliko irlandarra, galesera, greziera, hungariera, hurdua, inuitera, italiera, japoniera, kitxua, koreera, kroaziera, kurdue-
ra, maoria, nahuatl, nasa, norvegie-
ra, samiera, serbiera, turkiera, txe-
kiera, ukaniera eta wolof hizkuntza.



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB

beharrik gabe komunitateko kide egiten gaituena. Jatorriak jatorri euskaraz egiten digunak herrikidetzat aitortzen gaitu, parekotzat gaitu.

Euskara eta feminismoa elkarri lotuta doaz. Euskarak baditu ezau-garri batzuek planteamendu feministekin bat datozenak (genero markarik gabeko hizkuntza izatea, genero markarik gabeko izenak izatea Euskaltzaindiak zantar zantar bertutea den lekuan arazoa sortu zuen arte...) eta feminismoa hizkuntzen kudeaketan ere eredu oso onak ematen ari da, zapalkuntza anitzak kontziente egin eta berauek artikulatzen saiatzen baita, bestela galde 500 laguneko Topaketetan euskaraz bizitzeko gakoez Bilgune Feministari. Euskarak eta feminismoak zapalkuntzan eta askapenean bat egiten dutenez, batean eta bestean pizten ari da noka kontzienteki airtzeko ideia, emakumeen arteko konplizitatea eta hizkera subertsiboa sustatzeko.

Transbertsalitate handikoa da euskararen afera, gainerako zapalkuntza eta borrokekin bat egiteko gaitasun handia duenak.

Zein izango da euskal estatuaren hizkuntza?

Interneteko argia.eus webgunean 30 hizkuntzetara itzuli dugun euskarari buruzko artikulua irakurri duen munduko herritar zozoenak ere lotuko du Euskal Herriaren independentzia nahia berezko hizkuntza edukitzearekin. Gehienera berezko herri bat denaren frogak nagusia izango zaie berezko hizkuntza izatea. Askorentzat berezko estatuaren beharrari zilegitasuna ematen dion faktore nagusietakoa izango da euskara berreskuratzeko misioa.

Urruneko perspektibatik ura bezain gardenak dira berezko hizkuntza-estatuaren arteko loturak. Aldiz, surrealismoaren mugak zeharkatu ditugu azken boladan Euskal Herrian, euskara independentziarako traba ote den entzuterari iritsi baikara, independentziarako motibo nagusietakoa denean. "Itxaron, lehenik independentzia eta gero beste dena" esaldiak jada inuzentea ere konbentzitzen ez due-

nez, posizioak argitzeko hona euskaltzaleok erantzutea eskatzen dugun galdera: Zein izango da euskal estatuaren hizkuntza ofiziala (eta erreala) euskara ez bada?

Zeren zain gaude dagoeneko baditugun erabakigune eta erakundeetan euskara beharrezko egiteko? Herritar denek %100ean euskara ikasi arte gaude zain? (Zer egin bitartean ikastetxeek eta euskaltegiek azken 40 urteotan euskaldundu dituzten milaka herritarrekin?). Hala bada, epeak markatzeko ordua da. Eta herritarrek %100ean euskara jakitea bada baldintza, zeren zain gaude euskara ikastea unibertsala eta doakoa izan dadila bermatzeko!

Euskararen lurraldean inperialista zara?

Hizkuntza guztiek dute balio, zilegitasun, eskubide bera. Baina hizkuntza guztiek ez dute nagusi diren lurralderik. Are gehiago, belaunaldi honetan izan dugun galera handietako bat da jada ez dagoela herririk dagoeneko euskara hutsean bizi daitekeenik, euskaldun elebakarrik ez dagoen bezala. Gure begien aurrean gertatu da, erdaldunak deseroso sentitzearekin kezkatuta geunden bitartean.

Euskal Herrian erdaraz jardun arazten duenak, euskarak munduan duen lurralde bakarra kolonizatzen jarraitzen du, euskarari espazioa kentzen dio. Hizkuntzen gatazka da Euskal Herriko herritarren artean mugitzen dena. Hizkuntzen gatazka hori kontziente eta ikusgarri egin behar dugu, mahai gainera ekarri, eta dialektikoki landu. "Pertsonala politikoa da" irakatsi digu feminismoak. Migel etorri orduko koadrila osoa erdaraz egitera pasatzen bada, ez da Migel eta bion arteko arazoa, ez da koadrila honetako xelebrekeria, hizkuntza jarrera inperialista eta kolonizatuaren arteko talka da.

Euskararen lurraldean errespetuz bizi nahi duenak, euskaraz egitera bultzatu behar ditu euskaldunak. Horretarako gutxienezkoa du agertzea ulertzeko jarrera, ulertzeko gogoia. Kontzienteki egiten bada hobe, "nik oraingoz erdaraz egingo dut baina zuk hitz egidazu beti euskaraz".

Arazoa aldeztatzeko ordua

Bakoitzak hautatu dezala libreki (beraz, kontzienteki) zein hizkuntzetan mintzo den. Euskal Herriko gatazka linguistikoen historia ezagututa, euskararen egoera ezagututa, norberak egin dezala hautu kontzientea, politikoa, zer hizkuntzetan hitz egin.

Eta inork ez dezala inor derrigortu ezein hizkuntzan hitz egitera. Ez dezagun hizkuntzarik inposatu.

Bistakoa da euskaldunek (=elebidunek) ez dutela inongo arazorik elkarbizitzarako. Arazoa jarreraren inperialista duten elebakarrik dira. Elkarri ulertzea, horretara baikauden behartuta herritarrek elkarrekin bizitzeko. Eta ulertzeko beharrezkoa den ia bakarra borondatea da.

Bizitza osoa "ez dut ulertzen" erantzunaz pasatzea erabakitzen duenak, arazo bat biziko du bizitza osoan, bai Parisen, bai Madrilan, bai Euskal Herrian. Arazoa ez da Parisen frantsesa, ez Madrilan gaztelera, ezta Euskal Herrian euskara ere, arazoa goizero jaiki eta kalera ateratzeko tapoiak jartzea da. Lasai, gatazkan bizi nahi ez duenak berehala alboratuko ditu tapoiak eta denbora gutxian euskara ulertzen hasiko da. Eta arazoan bizi nahi duenak, ba bai, berak erabaki bezala, euskaltzaleokin arazoa izango du bizitza osoan.

Aske izateko jaioak

Euskaraz mintzo gara gure hautua delako, kontzientea, politikoa, askea. Eta herritar gisa gure eskubidea. Hor konpon horrek azkuratzen duena.

Behin bakarrik biziko gara, eta ez gaude prest zapalduta, kolonizatuta, bigarren mailako herritar gisa bizitzeko. Are, euskaldun herritarrok zapalduta, kolonizatuta, bigarren mailan bizi bagara, euskararenak egin du.

Herritar diren heinean politikariei ere eska dakiekeen gutxienezkoa, euskaratik eta euskaraz gobernatzea da, konplexurik gabe, hizkuntza zapaltzaileari zer irudituko beldurrik gabe, kolonizatuaren mentalitatek gabe. Euskaratik eta euskaraz gobernatzen ez duten politikariek ez gaituzte euskaldun gisa ordezkatzeten. Behin biziko gara, beraz, nahi dugun bezala bizitzea lortu dezagun: gure herrian bete-betean euskaraz. ■

Zentro-eskuina garaile estatuan, EH Bai eta FN nabari dira gurean

Ipar Euskal Herriko bozemaileen %52k parte hartu du bozen lehen itzulian. Departamendu osoan %53k bozkatu du, Hexagonoan %51k. Abstentzioa espero baino txikiagoa izan da. Estatuko bozemailea homogeneoa da. Frantzia eta Iparraldean zentro-eskuina garaile da. PSk behera egin du eta FNk gora. EH Bai bost kantonamendutan izanen da bigarren itzulian.

| MIKEL ASURMENDI |

FRANTZIAKO POLITIKA bipartidismo-tik hiru alderdien arteko joko izatera iraganbidean dago. FNk (Fronte Nazionale) UMPren eta PSren nagusitasuna hautsi dezake aurki. FN PSren heinera igo da Departamenduetako bozetan. Bigarren itzuliak zehaztuko du aldaketa honen tamaina. Ipar Euskal Herrian ere FN errotzen hasia da. Adibidez, Errobi-Aurri bigarrena izan da eta bigarren itzulian lehiatuko da. Alabaina, EH Bai da zentro-eskuinaren eta ezker klasikoaren artean espazio gehien irabazi duena. Bost kantonamendutan izanen da bigarren itzulian: Mendialdean, Uztaritze-Erobi-Urdazurin, Donibane Lohizunen, Bidaxune-Amikuze-Oztibarren eta Errobi-Aturrin. EH Baik 14.357 boz eskuratu ditu guztira. Beste aukera abertzaleak (EAJk) 1.243 boz besterik ez du erdietsi. Edonola ere, Estatuan, Erregioan, Departamenduan nola Ipar Euskal Herrian, zentro-eskuina (UMP buru) izan da garaile bozen %34rekin. FNk %25 jaso du. PS %20 inguruan geratu delarik.

24etatik bat bera erabaki gabe

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak 54 ordezkari izango ditu. Biarnoko 30 eta Ipar Euskal Herriko 24. Alta, bakarra ere ez da hautatua izan oraingoan. Hona lehen itzuliko emaitzak eta bigarreneko aukerak:

– **Errobi-Aturri:** EH Baik bozen %37,90 jaso du. FNk %16,74. Zentro-eskuinak %14,40 eta Ezkerreko Batasunak %14,02.

Haatik, EH bai eta FNren artean izanen da kontseilarien lehia. Bigarren itzulian parte-hartzeko, bozen %15etik goiti eskuratu behar baita.

– **Bidaxune-Amikuze-Oztibarre:** Eskuineko Batasunak bozen %47,48 jaso du. EH Baik %20,83 eta Ezkerreko independenteek %20,11. Biak izanen ditu arerio.

– **Baiona 1., 2. eta 3.:** 1. barrutia Eskuineko Batasunaren eta Ezkerreko Batasunaren artean erabakiko da. Bozen %48,26 eta %22,31 jaso dute hurrenez hurren. 2. barrutian, PSko hautagaitzak (Christophe Martin-Juliette Muller) bozen %24,49 erdietsi du. Eskuineko Batasuna (%22,62), FN (%18,46) eta Ezkerreko independenteekin (%16,98) lehiatuko da. 3. barrutian, eskuin-zentroa (UMP-UDI) garaile izan da bozen %32,83rekin. Alta, PSko hautagaitza (%32,24) hein berean bozkatua izan da. FN izan da hirugarrena bozen %13,99rekin.

– **Donibane Lohizune:** UMPk irabazi du bozen %28,74rekin. EH Bai bigarrena izan da %14,94 lorturik. UDiko zentristak hirugarrena (%14,41). FN laugarrena, %13,01rekin. Kasu honetan, salbuespenez, EH Bai eta UDI zentrista UMPekin lehiatuko dira.

– **Uztaritze-Erobi-Urdazuri:** Eskuinak bozen %30,22rekin irabazi du. Atzean EH Bai izan da, bozen %18,02 eskuraturik. Zentroko independenteak %14,74rekin, FN %13,71rekin eta Ezkerreko Batasuna %13,31rekin izan dira hautatua.

– **Miarritze:** Eskuineko Batasuna bozen %27,21rekin garaile izan da. Ezkerreko Batasuna bozen %22,46rekin bigarren. FN hirugarren, bozen %13,73rekin.

– **Angelu:** Zentro-eskuina (UMP, UDI) nagusiki garaile, bozen %40,69rekin. PS bigarren, %29,88rekin. Hirugarren FN bozen %15,16rekin. Barruti honetan FN ez da bigarren itzulian lehiatuko.

– **Baigura-Mondarrain:** UDI zentristak lortu du boz gehien: %35,41. Vincent Bru kontseilaria. Eskuineko Batasuneko Beñat Intxauspe kontseilaria da ere (bozen %25 jaso du). Beraiek dira lehiakide nagusiak. EH Bai ere lehiatuko da, bozen %18,16 eskuratu baitu.

– **Hendaia:** PSk (Ecenarro-Cottencon) irabazi du bozen %29,49rekin. Eskuineko independenteak (Salaberry auzapez ohia buru) bozen %18,39 jaso du. EH Baik %13,62, Eskuineko Batasunak %13,36 eta FNk %12,92 jaso dituzte. Lehen bien artean jokatu dira kontseilarien kargua bigarren itzulian.

EH Bai egonkortu da

Iparraldeko argazki hau lagin gisa balia daiteke Estatuko emaitzei buruzko ideia bat egiteko, tokian tokiko ezaugarriak eta koalizioak kontuan harturik. EH Bai egonkortu da Iparraldean, FNk aurrerapauso handia eman du Estatuan. Frantziako bipartidismoa iragana izan daiteke. Bigarren itzuliak zehaztuko du aldaketaren nondik norakoa. ■

Gizon Arruntaren Alderdia, Indiako beste populismoa

Delhiko boto emaileek lurrikara politikoa eragin dute Indian jaun eta jabe zebilen Narendra Modiren alderdi ultranazionalista lotsagarri utzirik: Arvind Kejriwali eman dizkiote estatu hartako 70 parlamentarioetatik 67. Duela bi urte ustelkeriaren kontra sortutako Gizon Arruntaren Alderdia da Indiako fenomeno populista berria.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

KEJRIWALIK DELHIN LURRIKARA eragin duela ez da ahoberokeria. Gizon Arruntaren Alderdiak (Aam Admi Party) eskuratu ditu 21 milioi biztanleko estatuaren gobernuaren metropoliaren parlamentuko 70 jarlekuetatik 67. Hiru parlamentari triste baizik ez urteotan Indian agintzen duen Narendra Modiren Bharatiya Janata Party (BJP) ultranazionalistarentzako; alerik ere ez Gandhitarren Indian National Congress (Congress) alderdiarentzat.

“Delhiko bataila politikoaren emaitza harrigarriak arnasarik gabe utzi ditu analistak, ahozabalik BJPko lekuko buruzagiak eta pentsakor Gobernu federaletakoak”, idatzi du L.K. Sharma kazetari beterranoak *Open Democracy* gunean “*Proper democracy triumphs in Delhi*” (Demokrazia bera garaile Delhin) titulua daraman kronikan.

Delhi estatuko gobernuburu datozen urteotan izanen da Arvind Kejriwal (1968), Indiako Teknologia Institutuan hezitako ingeniaria eta zerga bilketa zerbitzuko funtzionario izana, ustelkeriaren kontra kalean borrokatzen aritu ondotik politikan sartu dena.

“Hauteskundeotan garaileak erakutsi du alderdi politiko batek arrakasta eskuratu dezakeela diru asko eduki gabe, indar fisikoa erabiltzeke eta sektakeriazko manipulazioetan

zikindu barik”, dio Sharmak. Ordainetan, Aam Admi Party (AAP) alderdiak lortu du mobilizatzea erdiko mailako profesional asko Indiako kultura politikoa iraultzeko helburuaren bueltan.

Ideologia usainetik ihes egin eta arazo sinpleak aipatzen ditu AAPk. Txiroen alde mintzo da, lagun arteko edo konplizitatezko kapitalismoa (*crony capitalism*) salatzen. AAP indarrean azalduz geroztik, Modiren irudia aberatsekin lotzen zelakoan, honek ere txiroen alde mintzatzen hasi behar izan du. Baina ezker tradizionalaren mezuek goiko eta erdi mailako jendea izutzen baldin badute, AAPk bere ezker berri itxurarekin ez du izu hori eragin posizio oneko herritarren artean.

Bigarren aldiz dago AAP Delhi-ko gobernuan. Aurreko aldiak, gehiengo osorik eskuratu ez zenez bazkideztat zuen Gandhitarren alderdi ofizialista eta beste zenbait alderdi txiki; gobernatzen ahalegindu zen gehiengo sinplearen jabe zen BJPren kontra. 49 egun iraun zuen Kejriwalek dimititu arte, ustelkeria garbitu eta zerbitzu publikoa bermatzen lagatzen ez ziotelako.

Hiriburuko jendeen artean zapo-
re gozo-garratza utzi zuen Kejriwalek. Alde batetik, 49 egun horietan

Eexpress erabiltzaileak *Youtuben* ipinitako bideoen irudian, Arvind Kejriwali gaur Delhi estatuko buru dena. Atzean daukan pankartan ageri da erratza, AAP alderdiaren ikur nabarmena. Agerraldi publikoetan sarritan erakusten dira erratzak, Gizon Arruntaren Alderdiak bere burua txiroen mailaraino apaltzen duela eta Indiako politikagintza garbitzera datozela irudikatzen. Ezkerretik zenbaitek aurpegiratzen die hizkera marxista garbia baztertu izana. Beste batzuek, ordea, uste dute ezkerreko programa egingarri bat dakartela populismo bezituz: herritar guztientzako osasun zerbitzuak eta hezkuntza aldarrikatzen dituzte, kasta apalenen eta emakumeen bazterketaren kontra mintzo dira nahiz eta ez duten kuotarik ezarri, homosexualitatea despenalizatuko dutela agindu dute, energia berriagarri eta ez zentralizatuak defendatzen, lurra eta baliabideak lekuko komunitateek kudeatzea...

nabari omen zen ustelkeriaren kontrako bere eragina: polizia eta beste funtzionarioek eten zuten eskupeko beltzak kobratuz xantaia egiteko zerabilten ohitura zaharra. Baina beste aldetik, Kejriwalek ez zuen geldiarazi kaleko protesta eta liskar giroa, berez kaotikoak diren Delhiko karrikak itotzeraino nahasten zituen.

Hori duela urte bete zen. Oraingoan, ordea, estiloa aldatu dute Kejriwalek eta AAPk. Ez gehiago enpresariaren kontrako erretolika edo liskarzale itxurarik: kaleko gizon arruntaren kezka eta garbitasunez gobernatzeko promesak. Bide batez esanda, gure arrebek barkatuko digute *Gizon Arrunta* erabiltzea, matxismo eta guzti, baina AAP eta Kejriwal horrela dira mintzo.

Erratza nahi du jendeak

Naïké Desquesnesek *Le Monde Diplomatique*en iaz egin zuen AAPren erradiografia. Ingeleseko edizioan osorik irakur daiteke haren “*New party of the poor*” (Txiroen alderdi berria).

Ustelkeriaren kontrako borroka politikaren erdian jartzen lehena Ana Hazare izana zen arren, haren laguntzaile Arvind Kejriwalek kendu dio lekukoa 2012an AAP sortuta. Hazarek Mahatma Gandhi-



independentziaz geroztik Indiak industriaren kontra ezagutu duen mugimendurik indartsuena, besteren artean Namada ibaiko urtegi handiaren kontrako borroka burutu zuena. 1995ean 250 erakunde bilduz National Alliance of People's Movements sortu zuen. Desquesnesen ustean, "Patkarrek ez du aliantza estrategiko bat baizik sinatu AAPrekin, eta hau ahula da AAPk ez dielako lehentasunik ematen berdintasunari eta kasten zapalkuntzaren arazoei".

Populismo guztiak legez, AAP ere kontraesanez beterik dago, Desquesnesek azaldu duenez. Zenbait buruzagik jokabide xenofoboak eduki dituzte. Delhiko justizia ministroak etorkin afrikarrez esan zuen: "Beltzak ez dira zu eta ni bezalakoak, legea urratzen zaleak dira".

Matxismoari ez diote eskapo egiten AAPkoek. Turista daniar bat bortxatu zutenean Kejriwalek berak gertakaria prostituzioarekin eta drogarekin lotu zuen.

AAPren programa neoliberalak dela salatu dute batzuek, tartean Arundhaty Roik. Alegia, erratzaren alderdiak nahiago duela gobernu zuzena aipatzea (*good governance*) kapitalismoaren edo inperialismoaren kontra hitz egitea baino, eta langileen askapena lotzen diola legeak ematen dituen zirrituak baliatzeari.

Baina zertarako epaitu hain zorrotz AAPren populismoa, ezker klasikoa bere hizkera erradikalarekin gehienbat ondo bizi den jendeak osatzen duenean eta benetako txiroek kasurik egiten ez diotenean? ■

ren itxura hartzeko erabiltzen zuen kapa zuriari gehitu zion ikur berria: erratza. Dalit jende ukitu ezinak erabiltzen du kaleak garbitzen. Keinu bikoitza, txiroen defentsa batetik, ustelkeria bizi politikotik erauziz herritarrentzako zerbitzu publikoak bermatzeko promesa bestetik.

"Gu ez gara besteak bezalakoak —diote AAPko buruek—, gu politikan sartu gara soilik sistema garbitzeko". Ingeleseko hiru C borrokatuko dituztela agindu dute: ustelkeria (*corruption*), komunitate bereizketan oinarritutako alderdikeria (*communalism*), hinduak eta musulmanak elkarren kontra jartzen dituen, eta konplizitatezko kapitalismoa (*crony capitalism*).

AAPko buruek diskurtsoaren erdian ipintzen dute Gandhik aipatzen omen zuen *swaraj*: deszentralizazioa, autonomia politikoa. Leku-ko aginteei boterea berreskuratzea aldarrikatzen dute beti.

Desquesnesek *swaraj* ideia ikusten du mamiturik Mumbai hirian Medha Patkarrek egindako bidean. AAPra hurbildu zen Ghar Bachao Ghar Banao (Gure Etxeak Salbatu, Gure Etxeak Eraiki) mugimendua sendotzeko, hiri handi hartako auzo txiroak suntsitu eta bertako jendeak lekualdatzeko agintariekin zerabilten estrategiaren kontra.

Aldi berean, Patkar bera da AAPren kontraesanen termometroa. 1985etik Patkarrek gidatu zuen Narmada Bachao Andolan,



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Beste modu bat

“BANKU JARDUERA arduratsua, hurbila eta gizartearekin konprometitua da gurea; pertsonak lehenesten dituen eta parte garen gizartearen garapenean laguntzeko asmoa duena. Kutxa Kooperatiboaren proiektuan, beti izango dugu beste pauso bat emateko”.

Beste modu bat aldarrikatzen zuen Laboral Kutxak duela hiru urte Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak bat egin zutenean, eta bai, banku erraldoien jarduerarekin erkatuta, askok ikusiko dituzte beste moduak kreditu kooperatiboaren esparruan eta zehazki bestelako moldeak aldarrikatzen dituen Laboral Kutxan. Baina finantza entitate handien praktika txar eta desagokiak ere badira; izan ziren finantza oparotasunaren sasoian eta badira egun ere.

Miren Peña Antsoaingo (Nafarroa) 43 urteko emakumezkoak bere buruaz beste egin zuen iragan larunbatean prekaritate egoerak estututa. Ez dakigu bi ume utzi zituen emakumearen osasun egoera erabat zehatzaz, baina bai ostiralean etxearen hipoteka berrikus-teko eskaeraren ezezkoa jaso zuela Laboral Kutxaren aldetik. Hipotekak eragindako pertsonak biltzen dituen Nafarroako PAH elkartearen esanetan, praktika egokien kodea deritzona ukatu zioten. Horren arabera, Peñak 80 euro ordainduko zituen bost urtetan zehar. Ukapenaren ondoren, hurrengo egunean bere buruaz beste egin zuen. Duela bi urte kaleratu zuten Orkoien Faureciak duen enpresatik.

Prekarietatearen milaka aurpegietako bat gehiago zen Peña. Ion, Iraitz, Ainhoa, Oihana, Kontxi, Andrei, Mario José, Iker, Olatz, Maite, Pedro, Jesus... eta beste

dozenaka aurpegiren testigantzak irakurri ditu irakurleak aste orrialde hauetan. Ausartenen bizi-penak. Dozenaka milaka dira egoera estuan bizi direnak, eta milaka egoera larrian. Estatistikak hotzak dira, baina aipatu beharrekoak: langabezia tasa %14,9koa da Nafarroan; 48.000 pertsona pobrezia gorrian bizi dira eta ia beste hainbeste prekaritatearen atzaparretan direnak. Suizidioak ez datoz ezustean.

*Aldaketa nahi dutenek
hobe lukete
hegemoniaren
diskurtsotik ihes egitea
eta aliantzenari heltzea*

Gorpuak ere hotzak dira, baina heriotzak beroak; eta herritar arruntentzako kontzientziak astintzen dituzte, min egiten dute eta egoera ez dela justua esatera bultzatzen dute, besterik ez bada etxeko sukaldean. Kontzientziatuenak eta suminduenak protesta egitera aterako dira kalera Iruñerrian aste honetan, hauek ere beste modu bat badela aldarrikatzera, izan behar duela. Publizitateetik harago ere derrigorezkoa dela beste modu bat izatea.

Horregatik, Laboral Kutxak ere eman beharko luke informazio gehiago, bere esku izan den neurrian Peñarekin nola jokatu duen azaltzeko, bakoitzak dagokion erantzukizun zatia bereganatu behar baitu. Eta gero herritarrak baloratuko du. Eta bezeroak. Beste moldeak badirela sinesteko modu eraginkorra da.

KRISI BASATI honek gobernu berriak ekarriko dituela pentsatu

da sarri, eta badira horren zantzu batzuk, baina ez dakigu oraindik Grezia paradigma ote den edo kasu isolatu bat. Andaluziakoa ikusita bederen, Espainiak Greziaren biderik ez duela jarraituko garbi xamar dago.

Andaluzian %34ko langabezia dago eta Espainiako datu larrienetakoak biltzen ditu bazterketa sozialari dagokionez. Eta hala ere, PSOEek eta PPK –zartakoak zartako– biltzen dituzte botoen %70. Podemosek di-da batean 15 eserleku lortzea azterketarako fenomeno politikoa dela erakusten du, baina gobernura iristeko oraindik oso urruti daudela erakusten dute datuek. Horrexegatik, aldaketa nahi dutenek hobe lukete hegemoniaren diskurtsotik ihes egitea eta aliantzenari heltzea, Pablo Iglesiasen berak Andaluziako emaitzak baloratzekoan –“bidea urratsez egiten da”– Twitterren aldarrikatu zuen moduan. Indar politikoen arteko aliantzak eta alderdi politiko eta gizarte mugimenduaren artekoak.

Aliantzak, esaterako, ezinbestekoak izango dira Nafarroako hurrengo Gobernurako. *Noticias de Navarra* igandean kaleratu zuen inkesta (Gizaker): 50 eserlektutik UPNk 13, Podemosek 9, Geroa Baik 9, Bilduk 8, PSNk 7 eta Ciudadans eta Ezkerrak bana. Irakurketa ugari egin daitezke, baina emaitza horiekin UPNk jai luke. Aldaketaren gobernu eratzeko bi aukera leudeke: Podemos, Geroa Bai eta Bildu (gehi Ezkerra?) edo Geroa Bai, Podemos, PSN eta Ezkerra. Eztabaida liteke aldaketa hauspotzeko zein litzatekeen eraginkorra, baina aldaketa nahi duenak bata zein bestea sinatuko luke gaur bertan. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Argiako harpidedunentzat



Lar Zaldiak

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA
www.larzaldiak.com

1



ARTIUM

ARTE GARAIKIDEKO
EUSKAL ZENTRO-MUSEOA

3 lagunentzako
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA
www.artium.org

2

STM San Telmo Museoa



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA
www.museosantelmo.com

3



BARTOSZ PERNAL

MICHAL SZKIL
QUINTET JAZZ GETXO

5 CD opari

www.hotsak.com

4



Illimani

liburua opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2452. Argia)

EUREKA

Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)
Estitxu Kortajarena Ugarte (Tolosa)

AQUARIUMA

Galdakaoko Aek Euskaltegia (Galdakao)
Izaro Sudupe Altuna (Azkoitia)
Josu Diaz De Ojalora Serna (Usurbil)
Felipe Alkorta Andonegi (Donostia)

SAN TELMO

Fernando Bustillo Maestro (Donostia)
Ana M. Zubiarremeria Olañeta (Eibar)
Xabier Azkue Ibarbia (Zumaia)

EKAINBERRI

Iñaki Zubeldia Otegi (Ikaztegieta)
Imanol Irigoien Aranberri (Oñati)
Jokin Igartua Madinazkoitia (Oñati)

OKATXU

Amara Berri Aek Euskaltegia (Donostia)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea





Dpostontzia

Lagundu
Donostia
hobetzen



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián